

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1992ko Urtarrilak 10, 133. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



JAVIER EGIARA
Zuhaitz
genealogikoak:
detektibe lana

91-92 politikoen ikuspegitik



HOTZ-BERO

KLIMATIZAZIOA

Maalako Errabala 33- etxabea,
Tfnoak: 79 70 98 eta 77 04 83
ARRASATE


- AIRE GIROTUA
- BEROKUNTZA
- ERAUZKETA
(Estrazloak)
- ARAZKETAK
- MANTENUA

U

dala Plaza ingurua hau denbora gutxi barru asko aldatuko da, Larrea baserria ostegun honetan, hilak 9 bota egin-bait dute eta izen bera daramaten etxeak eta Gorostiza etxebizitzak eraikiko hor. Etxebizitza hauetara etorriko diren bizilagun berriek Udalaitez ikusteko eta bere edertasuna dastatzeko aukera izango dute leihoetara irtetzen diren bakoitzean, behelainorik ez dagoenean behintzat.

Larrea baserria, egia da

etxe berriz inguratuta dagoela baina, halako baserri polita botatzeko beharra zegoen? Seguruen garai baten etxe bakarra izango zen, beste inguruko basarriekin batera. Duela urte batzuetatik hona, inguru horretan etxeak eraiki eta eraiki dihardute, orain, traba egiten du baserriak eta bota egin behar. Akabo etxearen inguruan egoten ziren lore ederrak!



Jabier

FAMILI ETA GIZARTE-HEZKETARAKO ZENTRUA

2. HIRUHILEBETEKO EKINTZAK

3.30etatik 6.30etara

- Eskulan-tailerra: tridimentsionalak, tarazeak, larrua, etab.
- Osasuna eta kontsumo ikastaroa.
- Hezkuntza pertsonala, psikologia.
- Puntua eta gakorratza.
- Jostagintza.

6.30etatik 9etara

- Pintura eta marrazkia.
- Sukaldaritza.
- Esku-lan tailerra.
- Gitarra.
- Papiza eta makramea.
- Filosofia ikastaroa.
- Sexualitatea ikastaroa, gazteentzat.

Kurtso hasiera: urtarrilaren 8an, 3.30etan.

URTE BERRI ON!

Santa Teresa Auzoa, 12 Tfnoa: 79 04 59 ARRASATE

**ARRASATE
PRESS
ASTEKARIA**

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE.
Tfnoa: 77 05 65 Faxa: 77 09 40

Laguntzailea:

Arrasateko Udala

Zuzendaria:

Arantzazu Loidi

Erredakzioa:

Beñardo Kortabarria, Agurtzane Loidi.

Publizitatea eta harpidetzak:

Amaia Sanz
Tfnoa: 77 08 15

Maketazioa:

Goio Arana

Erredakzio-kontseilua:

Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zاراia,
Asier Aranguren, J. Velez de Mendizabal.

Kolaboratzaileak:

Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Blanka Jauregi, Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Hankamotz, Atalataikoan, ASA taldea, Xabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Andoni Urzelai, Koldo Rodriguez, Jon Andueza, Jabier Ozaeta, Jon Etxebarria.

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 5.800 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Literatura eta artea

Eguberri jaietan, Bernardo Atxagaren behi euskaldunaren istorioak deskribatzen dituen liburua erosi nahi izan nuen baina alperrik izan zen, ez bait nuen -sartu nintzen dendetan- titulu hori lortu ahal izan. Ikusgarria da aspaldi honetan gure artean sortu den atxagazaletasuna. Trinkili-trankala aurreratzeko joan den euskal literatura gizaraxoari argidorre berezi bat jaito zaio, argi izpiak barrurantz ezezik kanpokalderantz ere irradiatzen dituena. Ez dio ez, —halajainkoa!— bultzada txikia eman asteasuarrak gure literaturari.

Halabeharrik, euskal literaturak sukaldarako bidea hartu behar zuen inoiz zuzpertzeko bazen. Sukalde, lantegi eta txikiteoko elkarrizketagai bihurturik biderdia egina leukeela ziurta liteke. Horregatik, bada, literaturzaleok eskerrona azaldu beharko genioke Bernardori, hain zuzen ere giza-jeinuarentzat ezinbestekoak diren kultur konstanteetan euskalgintzaren alea sendotzen primeran ari bait da. Ez da bakarria, noski, baina bai behintzat kalitate maila neurri garaietara jaso duen bakarria.

Marcel Prousten "Galdutako denboraren bila" tituluari jarraiki, lasterketa eroari ekin beharko lioke euskal gizarteak, mendetako galeratik berpizteko. Baina horrek erokeria

suposatuko luke, izan ere sentsibilitate berriak denbora behar bait du eskaintzen zaiona irentsi eta liseritze-ko. "Inor ez da inor baino gehiago" esan ohi da eta adagioak artean erakusten du bere zorrotzasuna inon baino egokiago. Giza erlatibotasuna kontutan izanik, artea sormenaren emaitza zuzena dugu, eta bizidunen artean sortzaile omen den bakarria —orain arteko ikerketen arabera— gizakia da. Beraz, artean inork ezin du aintzindaritzaren bandera haizatu, inongo eskusibitatearen izenean.

Bernardo Atxagak harrotasuna itzuli dio euskal literaturari. Eta eledun gutxiko hizkuntzetan ugarikoetan adineko arte-kalitatea egin daitekeela berfrogatu du. Halabaina —ez dezagun ahaz— artistaren zereginak sortzezko mugetatik igaro behar duen arrazoi berberetatik, artezaleon izpirituak zoli eta kritikoki ihardun beharko du, sortzaileen ahalmena kamustu ez dadin. Hori horrela izanik, euskal irakurleek beste edonongoek bezain ongi berotuko dute eurei dagokien literatur-lapikoa.

Behi euskaldunaren memoriarik ezean, beste irakurgai desberdin bati ekin diot egun hauetan. Eta, zin dagizuet, badira euskaldunon artean ere irakurketa plazera bilakaeraz dezaketen beste zenbait idazle maixu. Dena iritsiko da.

JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL

**Memesa
79 42 22**

**comercial
san juan**

Garibal, 12
Tfnoa: 79 13 05

**hikein
MARKO-JARTZEAK**

Zerkaosteta, 4
Tfnoa: 79 13 84



gili gili

Iturriotz, 9 Tfnoa: 79 94 57



Liburu eta paperdenda
Bidaiarako eta larruzko artikuluak

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84




ZENBAKI

*Kontabilitatea
Fiskalitatea
Lana
Zuzenbidea
Juridikoa
Finantzaketa
Aseguruak*

Basabe industrialdea
ARETXABAETA
Tfnoa: 79 88 75
79 75 99

**ARAMAIO
okindegia**

Maisu Guridi, 3
Tfnoa: 79 36 46



Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06

Egiaren ohoretan Juan Jose Uriarte "Bermi"ri erantzunez

Argibideak ematera berandu samar banator ere, egiaren ohoretan dihardudanez, ez dut uste garrantziaren izpirik ere galtzen duenik nire erantzun honek, "Arrasate Press"ek bere 126. zenbakian Juan Jose Uriarte "Bermi"k "Arrasatek zergatik ez du parte hartzen "Euskara, gazteena" kanpainan?" galderari emandako erantzuna dela eta.

Bertan, besteren artean, honela dio: "Kanpaina horretan parte hartzeko gonbidapena, guztia erata zegoela iritsi zitzaigun. Kanpainaren bultzatzailea Eibarko Udala izan zen eta zertan oinarituko zen erabaki zuena". "Kanpaina erata etorri zenez, ez genuen izan guztien artean prestatu edo behintzat tokian-tokiko errealiterata egokitzeko".

Esaten duzun hori horrela inondik inora ez dela esateko zera diotsut:

a) Kanpaina hau egiteko asmoa aspaldikoa zela eta berau egiteko beharra eta lehentasuna 90-10-19an Elgetan erabaki zela, bertan Udala hauetako teknikariak zeudalarik: Bergara, Arrasate, Oñati, Eibar, Deba, Elgoibar, Antzuola, Aretxabaleta, Mendaro eta Soraluze.

b) Harrezkero beste hiru bilera gehiago ere egin zirela, Arrasateko Euskara Udala Teknikariak parte hartuz, kanpainaren gorabehera eta nondik norakoak landu eta erabakitze-ko. Hala nola, eta besteak beste, diseinuaren erabakia, garapen eta koordinazioa; Donostia, Hernani eta Tolosaldeak ere, Debaldez gain,

parte hartzea; kanpaina ondorengo urratsak...

c) Esandakoa egiaztatzeko akta eta testiguak daudela. Gainera Arrasateko Euskara Teknikariak gain Gazteria arlokoa eta Hitzarmenekoak ere izan zirela birritan. Beraz, bistan dagoenez, gonbidapena ez zen dena erata zegoela iritsi. Bestalde, beste guztiok legez, Arrasateko Udalak ere izan zuen denborarik bertako errealiterata egokitzeko. Eta, jakina, kanpaina guztion artean prestatu zen, neu izan arren bultzatzaile nagusia.

Aurrerago zera diozu: "Horretaz gain, kanpainan parte hartuz gero gastatu beharko genukeen dirutza, milioi erdi pezeta, ez geneukan aurrekontuetan sartuta".


Oraingoan ere kale egin duzula begibistakoa da, honakoa medio:

a) Bilera orotan Arrasateko Udala ordezkaturia egon denez aurrekontuaren prebisioa egina egongo zen, kanpaina hasi baino hiru bat aste lehenago komunikatu bait zitzaidan ezetza.

b) Gainera, publikoki esan duzenez, Arrasaten ez da kanpaina egin Prentsa Lokalaren Kongresuaren prestakuntza-lanetan zenihardutelako (Egin, 91-11-30)

Hau, eta besterik ez, da arrasatearren jakinaren ganean jarri nahi izan dudana, baktotxak ondorioak atera nahi izan ezker, informazio osatua goa eduki dezan, egiaren ohoretan.

FERNANDO MUNIOZGUREN,
EIBARKO UDALEKO EUSKARA
ZERBITZUKO TEKNIKARIA



Onduline TXOMIN HERIZ

eraikuntzarako materialak

Biltegia: Bidekruzeta, 1 Tfnoa: 79 23 18

Zer eskatuko zenioke Udalarari 1992rako?



Igor Martinez
(Langilea)

Rugbi ekipokoei zelai berri bat egitea eta kultur mailan gauza gehiago egitea.



Isabel Egia
(Ikaslea)

Kultura mailan zerbait egitea ondo egon daiteke.




Mariasun Errazkin
(Etxekoandrea)

Ez dakit, gauza asko daude aldatzeko, baina nire ustez gazteendako zerbait.



Jose Maria Peñaranda
(Langilea)

Egia esan ez dakit herrian zerbait konkretua falta den edo ez, baina, lana betetzen ahalik ondoen ahalegintzea eskatuko nioke nik Udalarari.



Satur
(Jubilatua)

Kaleak garbi mantentzea.



Isabel Segundo
(Etxekoandrea)

Kaleetan hainbeste txisa ez egotea eta zakarrontzi gehiago ipintzea.

GORROSTI
Jatetxea

Arimazuri plaza, ARRASATE Tfnoa: 77 06 07

ESLU

**ileapaindegia
eta
edertze-gela**

Olarte, 18 etxabea Tfnoa: 79 37 88
ARRASATE

BEHARREZKO TELEFONOAK

ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatorria	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

GURUTZE GORRIA

Bergara	76 55 76
---------------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------------	----------

ANBULATORIOAK

Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
(Txanda hartzeko)	77 03 46
	77 07 21
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16

ANBULANTZIAK

Gipuzkoako ambulanziaz	45 87 44
------------------------------	----------

UDALTAINGOAK

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22

ERTZAINZA

Arrasate	79 71 99
----------------	----------

SUHILTZAILEAK

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	78 28 00

MATXURAK

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78

GARRAIOAK

Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ZENTRUAK


Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA

Deba Garako Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak	79 87 77
KIUB-OMIC	79 51 55

MONTERRONGO LIBURUTEGIA

Monterron	77 01 05
-----------------	----------



10

OSTIRALA

- Zinea: Alai: "Fiebre Salvaje" (5-7.30-10).
- Erakusketa: "Santamas 91 argazki-lehiaketa", Monterronen hilaren 19a arte.
- Goardiako farmazia: Egunez: Azkoaga, Ferrerías. Gaeuz: Mozos, Bergara.

11

LARUNBATA

- Zinea: Alai: "Grito de piedra" (5-7.30-10)
- Goardiako farmazia: Egunez: Español, Iturrioz. Gaeuz: Camacho, Bergara.

12

IGANDEA

- Zinea: Alai: "Grito de piedra" (5-7-9.30)

- Al Andalus-eko Batzar Orokorra Monterronen goizeko 10etan.
- Goardiako farmazia: Egunez: Corcuera, Musakola. Gaeuz: Camacho, Bergara.

13

ASTELEHENA

- Zinea: Alai: "Fiebre Salvaje" (7-9.30)
- Hitzaldia: "Itzal beltza Sahara gainera" Udaletxeko Pleno Aretoan arratsaldeko 7etan.
- Goardiako farmazia: Egunez: Irizar, Erguin. Gaeuz: Puy, Bergara.

14

ASTEARTEA

- Zinea: Alai: "Fiebre Salvaje" (7-9.30)

- Besaide Mendizale Elkartearen batzar orokorra, arratsaldeko 7.30etan.
- Sukaldaritza ikastaroa, San Andreseko Torrepe Elkartearen arratsaldeko 3etan.
- Gantxilo ikastaroa, AEDn arratsaldeko 3etan.
- Goardiako farmazia: Egunez: Amezua, Santamaina. Gaeuz: Guallar, Bergara.

15

ASTEAZKENA

- Goardiako farmazia: Egunez: Aurora Ruiz, Maala. Gaeuz: Estella, Bergara.

16

OSTEGUNA

- "Lehen laguntzetan izan beharreko portaerak" izenburupeko ikastaroa, AEDn arratsaldeko 3etan.
- Goardiako farmazia: Morales, San Andres.

Kirol Agenda

Futbola

Mondra-Sodupe, igandean Atxabalpeko futbol-zelaian arratsaldeko 3.45etan.

Futbitoa

Zaldibarko futbito txapelketaren barne, larunbata eta igandean hainbat partidua.

Saskibaloia

Centraljet Euskal Air-Juven, Musakolako kiroldegian larunbatean arratsaldeko 6etan.

Ikastaroak

• Sukaldaritza

AEDko EKIN emakume taldeak sukaldaritza ikastaroa antolatu du hile honetarako. Ikastaroa San Andreseko Torrepe Elkartean, hilaren 14, 21 eta 28an (astearteetan) eta arratsaldeko 3etan izango da. Mari Tere Altunak sukaldari trebeak emango du ikastaroa.

• Gantxiloa

EKIN emakume taldeak antolatuta gantxilo edo gako-rratz ikastaro bat izango da hilaren 14, 21 eta 28an arratsaldeko 3etan Pablo Uranga kaleko AEDko lokaletan. Ikastaroa Axun Mendizabal arrasatearrak emango du. Interesatuak informazio gehiago jasotzeko edo edozein zehaztasun behar izanez gero, deitu AED Elkartera (79 14 32 telefonora)

• Lehen laguntzetan izan beharreko portaerak

Urtarrilaren 9 eta 16an, osategunak, arratsaldeko 3etan, Sabin Padilla sendagileak lehen laguntzetan izan beharreko portaerei buruzko ikastaroa emango du AEDn. Informazio gehiago nahi izanez gero AED Elkarteko 79 14 32 telefonora deitu.

• Sendabelarrak

Alberto Altubek urtarrilaren 23 eta 30ean arratsaldeko 3etan, AEDn, sendabelarrei buruzko ikastaroa emango du.



1992ko urtarrilak10



Santamasetako argazki erakusketa

Hilaren 19ra arte Monterronen

Gaur hasi eta datorren 19a arte, Monterroneko erakustokian Santamasetan ateratako argazkiez osatutako erakusketa zabalduko da, arratsaldeko 7etan. Erakusketa zabalzearrekin batera, azken Santamas Argazki Lehiaketaren sari-banaketa egingo da. Sari-banaketa hori dela eta, parte hartzaile guztiei bertara azaltzea gomendatzen zaie, irabazleentz gain, guztientzat opariak izango bait dira.

Horretaz gain, aipagarria da Gabonetan zehar Udaletxeko Artxibategiko leihoan iazko San Juanak eta Huescaran mendiari buruzko diapositibak ikusteko aukera izan dela. Aurrerantzean ere, ASA taldekoek gauza bera egiteko asmoa daukate baina asteburu jakin batzuetan bakarrik. Dirudenez, aurtengo Santamasei buruzko diapositibak eta Makalu mendiari buruzkoak prest dituzte dagoeneko eta laster ikusi ahal izango dira.

Hitzaldia

• "Itzal ilun bat Sahararen gainean"

Urtarrilaren 13an, astelehena, Udaletxeko pleno aretoan, arratsaldeko 7etan "Itzal ilun bat Sahararen gainean" izenburupeko hitzaldia emango du RAS-Dko ordezkariak Jira Bulagik. Ordezkari horrek, iaz ere beste hitzaldi bat eman zuen emakume saharauiarrei buruz.



Egutegiak

• Seaskako egutegiak salgai

Iparraldeko Ikastolen ekonomiko egoera larria dela eta, urtero, honez gero ezagunak eta ohizkoak diren Egutegiak salgai izaten dira ekonomikoki laguntzeko. 1992ko egutegiak salgai daude oraindik honako toki hauetan: AED elkartean, HIRE eta TTUKUN dendetan, Batzokian, Amaiur eta Irati tabernetan. Egutegi horiek erostea nahi dutenek 300 PTA ordaindu beharko dute eta lehen bait lehen eskuratu beharko dituzte, 92a

hasita dagoela eta denbora gutxi barru egutegiak jaso egingo dira eta..

Musika

• Gorosarri abesbatzak eta Arraste Musikalek kasette bat grabatu dute.

Eskoriatzako Gorosarri Abesbatzak eta Arraste Musikal Orkestra sinfonikoak musikako kasette bat grabatu dute. Garbapena zuzenean izan zen 1991 Maiatzaren 17an, Hernaniko San Juan Bautista Parrokian.



GOROSARRI ABESBATZA
(ESKORIATZA)
ARRASATE MUSICAL ORQUESTA SINFONICA
(MONDRAGON)
GRABACION EN DIRECTO
HERNANI - PARROQUIA DE SAN JUAN BAUTISTA
17 de Mayo de 1991

Deialdia

• Al-Andaluseko batzarra

Urtarrilaren 12an, igandean, goizeko 10etan, Monterronen, Al-Andaluseko Batzar Orokorra izango da. Batzordearen gai ordena honako hau izango da: 91ko aktaren irakurketa eta onarpena, kontuen egoeraren irakurketa eta onarpena, 91ko ekintzen informea, 92rako plan-gintza orokorra, zuzendaritza batzordearen %50ren berrietea, 92ra aurrekontu ekonomikoa, Al-Andalus gazte taldearen arauen onarpena, barne araudiaren onarpena, kontuak eramaten dituen batzordea berrietea eta azkenik, galdera erantzunak.

“.....
 Geure obren prozesu guztia guk egiten dugu, denen artean erabakitzen dugu gainera lan berrien nondik norakoa, autodidaktak gara zentzu horretan. Guk gure espazio propioa dugu eta gure teatro motarekin betetzen saiatzen gara. Teatroan denentzako lekua dago. Gure obrak erabat erreinbidikatiboak dira, nahiz eta askotan barrea erreinbidikatu. Gure teatroa soziala da eta ez politikoa”.

(Ruben Arriolabengoa, 1991-XII-24 EGUNKARIAN)

“.....
 Pirineotara orain dela lau urte joan ginen lehenengo aldiz eta, mendizaleek egin ohi duten progresioa ez dugu jarraitu guk; lehendabizi Pirineotara, gero Alpeetara, Alpeetatik Andeetara eta azkenik, Himalayara joan gara. 1988. urtea zen Alpeetara joan ginenean, hurrengo urtean Yosemite egin genuen, hemendik Pumorira jo genuen, 90ean, eta Pumoritik Makalura, aurten. Beraz, ikus daitezkeenez urtetik urterako progresioa oso azkarra izan da (...)


Satisfazio handienak mendian lortu ditugu, guretzat mendia engantxe bat da, gauza berezi bat. Misterio bat badago; tontorrera igo eta hemen zer? Mendiak zerbait badu...

(...) Makalun ezik, orain arte gu biok bakarrik ibili gara eta gailurrera igotzean anaia aldamenean dagoela ikusteak poz handia ematen du

(...) Gehien baloratzen dugun laguntza herri laguntza da, herrian sortzen den giroa beti animo bat bait da hurrengoari begira”.

(Iñurrategi anaiek, 1991-XII-28 EGUNKARIAN)

**San Silbestreko gogoe-
tak edo urtarrileko
aldapa**



Batzuk gehiago beste batzuk gutxiago, urtearen amaieran iragandakoari buruzko gogoetak egiten ditugu. Pertsonalki bete gabe utzitakoek aldaketarako gogoia ekartzen digute eta baita kontu izpirituala hutsean uzteko gogo ikaragarria ere. Eta badirudi presa horrek hilabeteen kontzentratu nahi duela urte oso batean egin ez duguna. Hurrengo abenduak erakutsiko digu enpeinuaren alperrikakoa, baina hanka sartzea gizakien akatsa da.

Beste elementu bat, azken urteotan lehenaz gain agertu dena, gabon jaietako oporrena da, zorte hori duten batzuen kasuan. Atsedanak aurretiko nekea esan nahi du. Eta egun hauetan gehiago nekatu baino egiten ez garenez, ondorioa ez da zaila: lan bikoiztua urtarrilerako. Gure pozerako, hain kenbentzionalak ez direnek “udaberriko festa” izendatzen dituztenak ageri dira urruntasunean. Baina garai honetako egunen laburtasuna bezain luze ageri da ordura arteko bidea.

Eta TBri esker denok ustezko sukaldari garen honetan, aurreko osagarri denak nahastu, bakoitzak aukera dezala bere proportzioa eta saltsa prest dago. Saltsa horrek neke eta ezkortasun zaporea du eta medikutzako terminoetatik ihesi, berri bat asmatu dugu: urtarrileko aldapa.

JUSTO ALZUA,
 AITA MENNI OSPITALEKO PSIKIATRA.

IKAS T A ROA

SUKALDARIETZA

AED ELKARTEA

Pablo Uranga 4 beheko. Tel. 79 54 46
20500 ARRASATE - GIPUZKOA

EMALEA: MARI TERE ALTUNA (SUKALDARI EZAGUNA)

EGUNAK: URTARRILAREN 14, 21, 28 (ASTEARTEAK)

ORDUA: 3 RETAN

TOKIA: SAN ANDRESEKO "TORRETE" ELKARTEAN

ANTOLATZAILEA: "EKIN" EMAKUME TALDEA



Herriko harresi zaharrentzat areto berria egin dute

Harresia erakustoki bihurtu

Arrasatearrek laster izango dute ikusteko aukera

Dagoeneko urte t'erdi pasatu da Zerkaosteta eta Arrasate Etorbidea kaileen artean, aintzinako Arrasateko harresiaren zati bat aurkitu zenetik. Aurkikuntzak bilera ugari eragin zituen Udal ordezkarien artean, harresiarekin zer egin erabakitzeko. Azkenean, harresia gordetzeko erabakia hartu zen. Horretarako lehenik, behebarrua erosi zen, 23 milioigatik gutxi gora behera.

Lokala erosteaz gain, behintzat hasieran erakustoki moduan erabiltzeko asmoa duenez, Udalak egokitu egin behar izan du. Egokitzeko, 4'5 milioiko

aurrekontua erabili da, bertan komun bi eta biltegi txiki bat eginez.

Egokitze lanak ia bukatuta daude eta arrasatearrek laster izango dute harresi zaharra eta harresia dagoen aretoan bertan kokatuko diren erakusketak ikusteko aukera. Izan ere, Udaletxeko kultura arduradunek pentsatu dutenez, beste edozein erakusketa ikusteko aukera izateak jendea harresia ikustera joatera bultzatuz dezake. Dena dela, erakustoki izaera behin-behineko gauza da eta ez dago jakiterik gero zer egingo den horrekin.

□ Istripua

Axel Lezeta Aretxabaletako 15 urteko mutilak Kandantxun eskiatzen zebilela istripua izan zuen eta Iruñeako ospitalean dago. Istripuaren ondorioz, buruan kolpeak ditu eta giltzurrun bat galdu du. Orain Iruñeako Ospitalean dago, koma egoeran, baina medikuen esanetan irtengo du.

□ Lur publikoaren okupazioa

Oraindik legea atera ez bada ere, hemendik aurrera obraren bat egin nahi duen edozein arrasatearrek, obraren proiektuan erabili behar dituen kontenedoreen berri eman behar du. Hori eginaz gero, Udalak kontenedoreak zenbat lur publiko okupatu behar duen eta zenbat denboran jakingo du. Orain Udalak jakingo du lur publikoaren erabiltzaileek zenbat ordaindu beharko duten. Obren inguruan jartzen diren kartelei buruz ere, zerbait aterako da.

□ Ekonomi ihardueren errolda

Datorren astelehena, hilak 13, ekonomi ihardueren errolda egiteari ekingo zaio. Aipatutako errolda egiteko bi milioitako aurrekontua dago Aldundiak bultzatuta. Idoia Salaberrri eta Aitor Abarrategi izango dira ikerketa egitearen arduradunak, Juanjo Madinabeitia, enplegu dinamizatzailea eta Kepa Undagoitia errenta teknikariaren aginduetara. Lana egiteko sei hilabeteko epea izango dute.

IZAGIRRE
barategia

Bañez Dk., 18 ARRASATE
Tfnoa: 79 59 86

• **Txitxinpe** •

Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

HUETO Doktorea

**Eztarria, sudurra,
belarriak**

Ordua eskatzeko: 79 81 11
79 81 00

Olarte kalea, 43 Arrasate



ETXEPARE - BILINTX
LIBURUBENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 BERGARA Tfnoa: 76 40 50

□ Egunkariaren oharra

Euskaldunon Egunkariak zozketa-
tzen zuen autoaren zozketa abenduaren
30ean egin zen eta zenbaki saritua
187.417 izan da. Dena dela, zenbaki
hau ez bada 1992ko urtarrilaren 30a
baino lehenago agertzen, 270.289a
izango da sariduna. Zenbaki hori, ber-
riz, otsailaren 15a baino lehenago
azaltzen ez bada, hirugarren eta azken
zenbaki hauxe izango da sariduna:
024.967. Zenbaki honen jabeak epe-
muga otsailaren 28an izango du.

□ Portaloiko termometroa

Portaloian zegoen termometroa ora-
in dela egun batzuk apurtuta azaldu zen.
Termometro horrek ez zion inori kalterik
egiten eta herri guztientzat edo begira-
tzea nahi zuenarentzat mesedegarri zen.
Hotzak ez zuen, bada, apurtuko...

□ Fagorreko langile bat hil

Urtarrilaren 7an, Fagorreko langile
bat hil zen, bihotzekoak emanda antza
denez, goizeko 7:30etan Fagorreko
aldagelan. Pedro Balanzategi Aldaso-
rok 62 urte zituen.

□ Senideak elkartearen eskerrak

Arrasateko *Senideak* elkarteak es-
kerrak eman nahi dizkie Arrasateko bi-
zilagunei, Kultur eta Kirol elkarteei eta
baita erakunde politikoei ere, erakutsi
zuten elkartasuna ezinbestekoa izan bait
zen pasa den Abenduaren 5ean izan-
dako plenoan *Senideak* elkarteak aur-
keztutako mozioa onartu ahal izateko.

□ Amnistiaren Aldeko Batzordeak

Arrasateko amnistiaren aldeko ba-
tzordekoek eskuzabaltasunez urtean
zehar izan diren ekintzetan parte hartu
duten guztiei eskerrak eman nahi diz-
kiete. Horieta gain, Arrasateko denda-
riei ere eskerrak luzatu nahi dizkiete
emandako laguntza baliogarriagatik.

Txandaka

EZAGUTZEN DITUZU JEHOVAREN LEKUKOAK?

Umetan "*Testigos de Jehova*" lehenaldiz, entzun nuenean, bitxia eta urrutiko zerbait iruditu zitzaidan. Nork pentsatuko zuen orduan denboraz neu iritsiko nintzela Jehovaharen Lekuko izatera? Orain beste pertsona askok antzerako zerbait sentitzen dute. Jehovaharen Lekukoak arraroak gertatzen zaizkie; gutaz zerbait entzun duten arren, ez dute ezagutzen zerk eragiten digun sakonean eta ezin dute ulertu, beraz, gure izakera eta gauzen ikuspegia.



(*) Juan Alvarez

Zer dira, beraz, Jehovaharen Lekuko Kristauak? Pertsona normal eta arruntak, beren familia eta arazoekin, baina Biblia sakon azertu eta, gure ustez, Jainkoa zuzen gurtu edo adoratzeko bidea aurkitu dutenak. Ondorioz, gure bizitzak zeharo dedikatzen dizkiogu Jainkoari eta ahal dugun denbora guztia Jainkoaren borondatea egiten ematen dugu, honetan gure bizitzako alderdi guztiak sartzen ditugularik.

Nola dakigu zein den Jainkoaren borondatea? Biblia aztertuz. Biblian Jainkoak inspiraturiko hitza dagoela sinesten dugu, beraren pentsamenduak daudela bertan idatzita eta, beraz, gure gidaria da gauza guztietan (Salmo 119: 105)

Zergatik Jehovaharen Lekukoak ize-
na? Argi eta garbi esanda, Jehova, Jainkoaren, Kreatzailearen izena da Bi-
blian. (Salmo 83:18). Hitez eta geure


jokabidez beraren le-
kukotasun edo testigantza
ematen dugu guk, horre-
gatik gara haren Lekukoak
(Isaias 43: 10-12).

Arrasateko Kongre-
gazioan 55en bat lekuko
gara. Beste 40 inguru ere
Biblia aztertzen ari dira
gurekin eta bileretara
etortzen direnak ere badi-
ra; inolako konpromezu-
rik gabe eta ezer ordaindu
gabe, noski. Idatzi San-
tuak ezagutzen ari dira eta guk ez ditugu
presionatzen Lekuko izan daitezen. Be-
raiek erabaki behar dute zer izango diren
edo zer ez; hori guztiz pertsonala da,
gure erabakia izan zen bezalaxe. Baina
zera, gu saiatzen gara jendea bisitatu eta
Bibliaz eta Jainkoaz hitz egiten, bes-
teenganako benetako maitasun eta inte-
resaz. Geure esperientziagatik, badaki-
gu asko eta era praktikoa lagun diezaie-
keela bizitzan, arazoak aurikusi edo
eragozten, eta arazoei aurre egiten, sor-
tzen direnean. Gainera, hobeto ezagu-
tuko dute Jehovaharen promesa: Lurra pa-
radisu bihurtzeko promesa, gizateriak
goza dezan. Jainkoaren izatean sinesten
ez dutenek, aldeko eta kontrako ebiden-
tzia azertu ahal izango dute, partzialke-
rriarik gabe.

Beraz, gonbidaturik zaude gure-
kin Biblia aztertzerara. Hurrengoan zure
atera dei egingo dugunean, galdetu, za-
lantzarik gabe. Zuri laguntzeko gaude.
Jehovaren Lekukoak hobeto ezagutuko
gaituzu, baita guztion Egilea dena ere.

Beraz, gonbidaturik zaude gure-
kin Biblia aztertzerara. Hurrengoan zure
atera dei egingo dugunean, galdetu, za-
lantzarik gabe. Zuri laguntzeko gaude.
Jehovaren Lekukoak hobeto ezagutuko
gaituzu, baita guztion Egilea dena ere.

(*) JEHOVAREN LEKUKO



ERRASTI KRISTALDEGIA
Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak

Olarte kalea, 47 behea. Tfnoak: 79 22 55 / 79 14 25

J. M. Heriz

Konpromezurik gabeko
aurrekontuak

Otalora Lizentziatua. Arrasate



Kiroldegiko pista ezberdinak zozketatuko dira hilaren 11n

Kiroldegiko kuota berriak

Txartel magnetikoa erabili beharko da

Aurten ere Kiroldegiko txartela atarzea nahi dutenek aukera izango dute eta horretarako 1992 urterako kuota honako hauek dira: 1975-1989 tartean jaiotakoek (biak barne) 5.425 PTA ordaindu beharko dute. 1972-1974 tartean jaiotakoek (biak barne) 7.575 PTA. 1972 baino lehenago jaiotakoek 9.720 PTA. Familiarentzakoa, haurrik gabe edo haurrak ikasleak edo langabetuak badira 13.115 PTA. Jubilatuek, banakoa 895 PTA. Senar-emazte jubilatuek, 1.735 PTA. 1972az geroztik jaiotako haurrak dauzkaten senar-emazte jubilatuek 4.160 PTA. Ikasle diren edo langabezia dauzen haurrak dauzkaten alargunak 7.595 pta. Soldadutzan dauden gazteak, eskualdetik kanpo ikasten ari direnak eta Eusko Jaurlaritzaren Gazte-txartela dutenak 4.415 PTA.

Kiroldegira sartzeko txartel magnetikoa erabili beharko da aurten. Txartel hori eramaten ez dutenei atezainak ezin

izango die eskuz zabaldu. Hala ere, txartela galtzen dutenek 530 pta ordaindu beharko dituzte txartel berria jasotzeko, eta txartela norbaiti uzteagatik abonatu eskubideak galdu egingo dira hilabetez.

Kuota ordaintzeko Aurrezki Kutxen bidez ordaindu nahi ez dutenek eskura egin beharko dute, Kiroldegiko bulegoetan, bulego orduetan.

Bestalde, aldagela eta igerilekuetan, bainu-txankletak erabiltzea derrigorrezkoa dela gogorarazi nahi da, kirol instalazioetarako Osakidetzak jarritako araudiaren arabera.

Azkenik, urtarrilaren 11n, larunbatez goizeko 11tan, Kiroldegiko pistaren zozketa egingo da bazkideen artean. Pistak, frontoia, squash, tenis eta futbitoak izango dira eta pista hauek tokatzen zaizkien bazkideek nahi duten eguna eta ordua aukeratzeko posibilitatea izango dute.

Usteak uste

Bukatu dira turroiak, txanpainak, zuhaitz dizdiratsuak, opariak... farrez eta algaraz agur esan diogu 1991. urteari, heldu da azkenean 1992. urte dontsua.

Baina dena dela ez da turroia eta txanpaina izan, ez eta farrea eta dantza ere, izan da egun hauek lur azpian pasatu dituenik ere, 1992. urtean ere bere lanpostua izan nahi duenik. Herrian bertan, nahiz eta egun hauek lur azpian ez igaro, zenbat da bere lanpostua galtzeko beldur? Zenbatek galdetu dio bere buruari: izango al dut lanik datorren urtean? Hainbatek eta hainbatek, nahiz eta ez lur azpian, bere lanpostua defendatu beharko du 1992. urtean zehar, eta zenbat geratuko ote da kalean?

Baina ez arduratu, 1992. urtean gaude, eta badakizue, jakin behar duzue honez gero, urte honek zein ondare eta mirari ekarri behar digun. Gainera, aurten betetzen dira hainbat herriren aurka egindako genozidioaren 500 urte, eta hori ere ospatu behar da. Horrela bada, ez kezkatu, arrazoi gehiago dugu pozteko triste egoteko baino, eta kasualitatez zu zeu bazara lanik gabe geratzen den horietako bat, egon lasai, etorriko da beste urte bat, eta ordurako asmatuko da beste zerbait, lana ez bada ere, izango da zer ospatu, horretarako ez daude, bada, jaun jakintsuak?


Horrela, bada, animo, gora bihotzak, alaitu aurpegiak, hau 1992. urtea da!

AMAIA JAUREGI-ARRABURU



**SAMEGO
GARBIKETAK**

Urriburu, 24
ARRASATE
Tfnoa: 79 70 39




Sari paregabeak

Beheko sei denda horietakoren batean erositak egitean, bi sari bikain hauek zeureganatzeko aukera izango duzu, urtarrilaren 14ean ARRASATE PRESSen egingo den zozketan parte hartuz.




**Kanaria
Irletara bi
lagunentzako
bidaia.**


Renault Clio 1.1 CL (F. F.)



Iturriotz kalea, 8 ARRASATE
Tfnoa: 77 04 01



Otalora, 25 ARRASATE
Tfnoa: 77 13 20



Maalako Errabala, 5 ARRASATE
Tfnoa: 79 19 25

Fototrukkoa

Aste honetako
irabazlea:
MARKEL GOIKOLEA

Argazkikoa nor den esanez, bidali
beheko txartela ARRASATE PRESSera
(Azoka kalea, 1) eta aste honetan IKATZ
ARGAZKI etxeak emango duen opariaren
zozketan sartuko zara.

ERANTZUNA

Nor da aste honetako
pertsonaia?

.....

Izena:


Abizena:

Helbidea:


.....

Herria:

Tfnoa:



Patxi Goikolea zen joan den asteko pertsonaia.




KATAIDE

Kataide Poligonoa. ARRASATE
Tfnoa: 79 60 10



Maala Errabala, 13 ARRASATE
Tfnoa: 79 92 76



J. Markiegi

JANTZIDENDA

Olarte, 2 ARRASATE
Tfnoa: 79 15 32

Osakidetzaren oharra

Leintz-Gatzaga, Eskoriatza eta Aretxabaletako biztanleek, lanegunetan bostetatik aurrera, osasun-asistentzia behar dutenak Arrasateko anbulategiko Larrialdi Zerbitzura joan beharko dute. Bestela, 79 13 57 telefonora deitu behar da. Kontaktua hau egitea posible ez baltz, (945) 24 44 44 telefonora dei egin daiteke. Igande eta jai egunetan, berriz, lehen aipatutako telefonora jo daiteke eguneko 24 orduetan. Dena dela, zerbitzuak itxita daudenetan, 79 13 57 telefonora ere dei egin daiteke.

Zuzenketa

Arrasate Presseko 131. zenbakian, *Fotozahar*-en Olentzero Jose Ramon Berezibar Txaparro zela azaltzen zen. Dirudienez, Olentzero Jose Angel Arana zen. Orain urte batzuk Zigarrolaraino Olentzero ez zen heltzen eta bertakoak bertan egitea erabaki zuten.

ONGIETORRIA JAI OBERRIEI

- Naiara Agiriano Salaberri, abenduaren 16an.
- Markel Mangana Aranbarri, 18an.
- Ander Soto Sarraoa, 20an.
- Aitor Irastorza Azkarate, 22an.
- Ane Ortueta Higuera, 26an.
- Cristina Estrella Gomez, 27an.
- Jokin Garcia Lemadetz, 28an.
- Maria Vaz Vega, 28an.
- Garazi Esteban Sagasta, urtarrilaren 6an.

EZKONBERRIEI ZORIONAK

- Luis Unamuno & Miren Jasone Uribe.
- Abenduaren 21ean. Elizaz.



Mikel Urrutia bibotea eta betaurrekoekin eta Alex Belategi goiko aldean eskuman.

Tristura handia Eskoriatzan

Pirineoan hildako bi gazteak oso ezagunak ziren herrian

Mikel Urrutia eta Alex Belategi eskoriatzarren heriotzak izugarriko tristura ekarri dio Eskoriatzako herriari. Izan ere, gazte biak oso ezagunak ziren herrian, mendizale amorratuak izateaz gain, beste iharduera batzutan ere ibiltzen zirelako; esate baterako, Mikel Urrutia Musika Eskolako partaidea zen eta Alex Belategi Aizorrotz taldekoa, etnografia eta aurrehistoriaz arduratzen den taldekoa.

Hori dela eta, ez da arraroa gazte bien hiletetarako Eskoriatzako herri osoa

kalera ateratzea eta eleiza jendez gainerka izatea. Hileta elizkuzunak pasaden asteartean burutu ziren, arratsaldeko 7etatik aurrera eta zortzi apaizez gain, txistulariak, bertsolariak eta herriko musika banda izan ziren bertan.

Gogora daitekeenez, Pirineotako Monte Perdidon erortzerakoan bizia galdu zuten biek batera, beste hiru garren eskoriatzar batera bazen, Agustin Agiriano, baina istripua gertatutako egunean ez zuen mendira igotzeko saiakerarik egin.

FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN

ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA



GIZON ETA
EMAKUMEAREN
MODA

Otalora 2/g
Tfnoa: 79 20 50
ARRASATE

Izen
PROPIOAK



Abenduaren, 5ean urtero bezala, **Meltxor, Gaspar** eta **Baltasar** Arrasateko kaleetara etorri ziren. Aurten ere kaleak bete dituzte haurrek Errege Magoak ikusteko.

● **Arkauz, Ramon**, 37 urteko arrasatearra izango da SUDC Elkarteko lehendakari berria, Antton Zumalderen orde. Ramonek Garagartzako Fagorren lan egiten du.

● Arrasateko San Viator Ikastolako **"Ortzadar" taldeak** Gabon Abesti Sarieta Probintzian, haur mailan, 4. postua lortu zuen. Talde guztietako partaideek 15 urtetik beherakoak izan behar zuten eta guztira zortzi taldek parte hartu zuten. 25.000 ptako saria eskuratu zuen taldeak.

● Estatuko zirklos txapelketa Urtarrilaren 12an Valentzian izango da eta bailaratik, honako hauek izango dira partaide: afizionatuetan, **Iñigo Roldan**, aretxabaletakoa; jubenetan, **Igor Guentxea, Alberto Roldan** eta **Zigor Araolaza**, guzti hauek ere aretxabale-takoak; kadetetan, **Zigor Urain**, arrasatearra.



Abenduaren 31n Eskualde Ospitalean gaueko 2:05ean jaio zen 1991. urteko azken haurra. **Igone Gaztelurrutia Irasuegik**, goiko argazkikoak, kilo bat eta 980 gramo zituen eta Abadiñokoa da. 1992. urteko lehenengo haurra, berriz, Urtarrilaren 3arte ez zen jaio. **Gaizka Zelala Cueva**, oñatiarra, gaueko 21:28tan jaio zen eta 3kilo eta 215 gramo zituen jaiotzean (ezkerreko argazkian).

LASAGABASTER

JANTZIDENDA

Bertan izango duzu beti modako gauzarik onenen aukera zabalena

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55



Otatora kalean semaforo ondoan debekatuta dago aparkatzea, trafikoa ostopatzen duelako. Hala eta guztiz ere, asteburuetan eta azoka dagoen egunetan batez ere, jendeak aparkatu egiten du hor.



Azken bi **Fototrukoen** irabazleak **Iosune San Vicente** eta **Pilar Larrañaga** izan dira. Lehenengoak Zubiagako erloju bat irabazi du eta Pilarrek Kataide jatetxeko afaria. Zorionak bioi, beraz. Eta gainontzekoei jarraitu bidaltzen, noizbait izango da zuen txanda eta.



Argazkian ikusten den moduan hogeitamar baino gehiago izan dira Gabonetan Arrasate Pressera zoriontzeko **postalak** bidali dizkigutenak. Mila esker guztioi.



Arbolapetako zuhaitzak 80 urte bete ditu. Gaur egun zuhaitz bat bakarrik egon arren lehen gehiago zeuden. Orain urte batzuk botatzera zihoazela, lagun talde batek aurre egin omen zion motozerrari eta oraindik ere han ditu gaztaironondoak makinaren arrastoak. Zorionak eta urte askotarako!



Parques y Jardines

PARKE ETA LORATEGIEN
SORKUNTZA
LORAZAINTZAKO
MANTENIMENDUA ORO HAR
LANDARE-BIRSORKUNTZA
HIDROEREINTZAZ



Casa-Torre kalea. Tfnoa:94-681 90 82 ABADIÑO (BIZKAIA)





Ostera lanera

Gainontzekoei bezala pasatu zaizkie oporrak Zaldibarko futbito txapelketan parte hartzen ari direnei ere. Famili eta lagun arteko bazkariak ahaztu eta errege bezperan, berriz ekin zitzaion txapelketari. Kasu jakin batzuetan ezik, jende gehiena jolasteko gogoz bueltatu zen.



**ARRASATE
KIROLAK**

Astore, Nike, Reebok, Auia, Adidas, Converse, Mito, Eillesse, Boreal, Libero, Quicksilver, Le coq sportif, Millet, Saucony, L. A. Gear, etab.

Kontzeziño kalea, 8 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 12 Faxa: 77 05 30



**DEBA
GARAIA**

INMUEBLE ETA FINANTZ AGENTZIA

ITURRIOTZ, 23 etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 13 02 Faxa: 77 14 27



Zaldibarko Futbito-txapelketa

A taldea

	Partiduak				Golak		Punt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	guzt.
Akaitegi Express	10	7	2	1	92	30	16
Zulu's	10	8	0	2	44	28	16
Los Heredia	9	7	1	1	50	17	15
Fosforos	10	6	2	2	55	29	14
Adobe	9	6	2	1	34	27	14
Jubilatus	9	4	3	2	42	37	11
A. Kristaldegia	10	4	2	4	29	25	10
G. P. Noski	9	3	3	3	33	21	9
Kriskibalda	8	3	2	3	30	25	8
S. Ind. Ugarte	9	3	2	4	29	34	8
Koxkas	9	2	2	5	34	55	6
Uglys	8	2	0	6	20	29	4
Expert	8	0	3	5	21	52	3
B. D. L.	9	1	0	8	15	57	2
T. San Josepe	9	0	0	9	20	82	0
Los Manchas	---	---	---	---	---	---	---
Neanthertal's	---	---	---	---	---	---	---
Tronkoteak	---	---	---	---	---	---	---
Total	136	56	24	56	548	548	136

B taldea

	Partiduak				Golak		Punt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	guzt.
La Banda	10	9	1	0	51	17	19
Los Motz	10	9	0	1	70	19	18
Fasprint	11	7	3	1	51	25	17
Jo ta akabau	11	8	0	3	51	28	16
Potroak Lorategi	11	7	1	3	52	27	15
Navarros	10	7	0	3	41	19	14
Danok Lagun	10	6	1	3	40	26	13
Sibilus Rover	11	5	3	3	27	26	13
Ganbelas	11	4	1	6	43	37	9
Gau Azkenak	10	4	1	5	32	31	9
Anbotoste K. T.	10	4	1	5	29	40	9
Bukanak	10	3	1	6	31	49	7
Txintxes Osorik	11	2	1	8	23	44	5
Inter de Alima.	10	2	1	7	22	62	5
M. K. A.	10	2	1	7	21	58	5
Maria del Monte	10	1	0	9	22	61	2
Oleeel	10	0	0	10	21	58	0
Totxus	---	---	---	---	---	---	---
Total	176	80	16	80	627	627	176

C taldea

	Partiduak				Golak		Punt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	guzt.
Adelaida Haizea	11	10	0	1	55	11	20
AEK	11	8	2	1	46	28	18
Argi Ibilu Mapfre	11	8	1	2	65	31	17
Gnu Seg. Bilbao	11	8	1	2	34	11	17
Diego Antonio	11	7	2	2	41	25	16
Bar Kajoi	11	7	0	4	62	24	14
New Laso Arregi	11	6	2	3	39	26	14
Txokeros	11	6	1	4	42	29	13
ATB	11	5	2	4	43	38	12
Aizpun bila	11	6	0	5	46	56	12
Aurrera Bolie!	11	3	2	6	24	31	8
Arrasate Press	11	3	1	7	22	41	7
T. Monterey	11	2	3	6	31	53	7
Alaves	11	3	1	7	22	47	7
Sokoakoak	11	2	1	8	32	53	5
Bayer de Lenitz	11	2	1	8	18	59	5
Shaktale	11	1	2	8	26	59	4
Whiskeria Linde	11	1	0	10	30	56	2
Total	198	88	22	88	678	678	198

D taldea

	Partiduak				Golak		Punt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	guzt.
Arrasate Kirolak	10	8	1	1	45	16	17
Artzankos Udal.	10	8	0	2	44	22	16
Notxingan Flo.	10	7	1	2	38	25	15
Camerun's	9	6	2	1	39	17	14
V. C. Daglas	9	6	1	2	41	12	13
Bar Artano	10	6	1	3	41	26	13
Pepelus	10	6	0	4	38	25	12
Ghana	11	6	0	5	43	32	12
Hirei	9	5	0	4	28	21	10
Bizkorrak	9	4	1	4	28	25	9
Arrasate Comer.	9	4	1	4	20	24	9
Kakajauri	10	3	0	7	22	39	6
Nagixak	10	2	1	7	20	42	5
Ezkinako Hontza	10	2	0	8	21	52	4
Sukumurus	10	0	1	9	15	46	1
Atxanta ke te...	10	0	0	10	15	72	0
Balaike	---	---	---	---	---	---	---
Resakas	---	---	---	---	---	---	---
Total	156	73	10	73	498	498	156

JMA



Ez dago ez aldagela apartekorik Zaldibarko frontoi inguruan, ezta jolasten den bitartean erropak uzteko tokirik. Hori dela eta, lagunik ezean beste nonbait utzi behar erropok. Ziburuak mesede ederra egiten du horrelakoetarako.

Osorategi
Kafetegia

Iturriotz, 7 Tfnoa: 79 04 67
ARRASATE

EMAITZAK

A taldea

Los Heredia 12 Talleres San Josepe 1
Jubilatus 7 Fosforos 4
G. P. Nosié Los Menehes
Koxka's 0 Zulu's 8
Sum. Ind. Ugarte 7 B.D.L 2
Adobe 2 Akaitegi Expres 2
Uglys Neantheral's
Arrasate Kristaldegia 4 Expert 4

C taldea

Diego Antonio 6 ATB 1
Aizpun Bila 3 Aurrera Boliel 1
New Laso Arregi 4 AEK 5
Monterrey taberna 1 Adelaida 7
Sokoakoak 4 Bayer de Lenitz 0
Bar Kajo 2 Argi Ibil 3
Txokeros 4 Gnu. Seg. Bilbao. 0
Shaktale 2 Arrasate Press 6
Alaves 3 Whiskeria Linde 1

B taldea

Petroak Lorategi 15 Inter de Alimañas 1
Anbotoste K. T 3 Faspriint 8
Danok Lagun 8 Oleee! 3
Bukanak 2 Navarros 6
Sibilius Rover 2 Jo ta akabaul 1
M. K. A. 4 Maria del Monte 3
Gau Azkenak 1 La Banda 5
Ganbelas 2 Txintxes Osorik 3

D taldea

Nagixak 0 V. C. Daglas 8
Pepelus 9 Abxanta ke te... 0
Artzankos Udalaiz 4 Kakajauri 2
Arrasate-Kirolek Resakas
Sukumurus Anboto 3 Notxingan Flo 5
Cameruns Trikiti 1 Hirei 0
Bar Artano 2 Ghana 3
Bizkorrek Balaite
Ezkinako Hortzak 2 Arrasate Comercial 5

EDERRA

TABERNA

Iturriotz, 12
ARRASATE
Tfnoa: 79 96 25

Osorik
pub

Ignazio Zuloaga kalea Arrasate

B E T I
SEGURU

MIKEL LASA
Aseguru artekaria

Maalako Errabala, 33 etxebehea. ARRASATE
Tfnoak: 79 69 00 / 79 69 43



Txutak

Lau talde kanpora

Iazko azken kronikan argi utzi genuen atsedendia arriskutsuak gerta daitezke eta Zaldibarko Futbito Txapelketako aurtengo lehen ihardunaldiak baieztatu besterik ez du egin orduan esandakoa. Aurtengo lehen ihardunaldiak lau talde txapelketatik kanpo lagatzeko balio izan du, jokatu beharreko partiduetara ez agertzeagatik. Jarraikortasun kontua da hori eta jarraikortasun ezagatik, *Los Manchas*, *Neanthertal's*, *Baleike* eta *Resakas* taldeek ezin izango dute partidu gehiago jokatu.

Talde horiek kanporatzeak ondorio zuzena izan du sailkapenetan eta ez

dago jakiterik gauzak bene-benetan nola dauden, talde batzuk besteei baino partidu gehiago jokatu dituztelako. Gauzak horrela, sailkapen kontuak ahaztu eta emaitzei begiradaxo bat eman behar, *Potroak Lorategi* taldeak 15 gol, *Los Heredia* taldeak 12, *Pepelus*-ek 9, eta *Zulu's*, *DanokLagun*, *Fasprint* eta *Video Club Daglas* taldeek 8na gol lortu zituela. aipatzeko

Asteburu honetako ihardunaldiari begira, ez dago partidu interesgarri gehiegirik, hau da sailkapenetako aurreneko postuetan daudenei seguruen erraztasunez irabaziko dute eta atzekaldean dabilzanek galdu. Behar bada, D multzoan *Arrasate Kirolak* eta *Camerun's* taldeen arteko partidua izan daiteke interesgarriena.

BEÑARDO KORTABARRIA

DATORREN URTEAN

A taldea

Koxkas	Adobe
Jubilatus	Akategi Express
G. P. Noski	Sum. Ind. Ugarte
Ugys	Fosforos
Kriskibalda	B. D. L.
Expert	Talleres San Josepe

B taldea

Los Motz	Navarros
Potroak Lorategi	Oleel
Bukanak	MKA
Anbotoste K. T.	Maria del Monte
Danok Lagun	Sibillus Rover
Gau Azkenak	Fasprint
La Banda	Ganbelas
Txintres Osorik	Inter de Alimarias

C taldea

Diego Antonio	Bayer de Lenitz
Aizpun Bila	Adelaida
Sokoakoak	Txokeros
New Laso Arregi	Gnu. Seg. Bilbao
Monterey taberna	Bar Kajo!
Shaktale	AEK
ATB	Argi Ibilii
Arrasate Press	Alaves
Whiskeria Linde	Aurrera Botie!

D taldea


Nagixak	Notbingan florest
Sukumurus Anboto	Bar Artano
Artzankos Udalaiz	Ghana
Arrasate Kirolak	Camerun's
Bizkorrak	Kakajauri
V. C. Daglas	Hirei
Arrasate Comercial	Abanta ke te...

Foruen



Gure berezitasuna: rabak

Foruen Plaza, 2 Tfnoa: 79 06 16
ARRASATE



EGIDO

Automobilarentzako
ordezko piezak

Legarre Pabilioia.
ARRASATE Tfnoa: 79 62 11

Jovi

Pintura ekologikoak
Diferentzia: zure osasuna

Zoru arinak. Saipolan. Ceflex. Neu-
rritarako felpudoak. Pertsiana biri-
bilkagarriak. Ehunezko horma-
takoak. Kortxoak. Moketa losetan.

Ferrieras, 35 ARRASATE Tfnoa: 79 12 87

STIHL

Leniz Motor

- Nekazal makinaria
- Basogintzarako tresnak
- Lorazaintza
- Motozikleten salmenta eta konponketa

Gipuzkoa Etorb., 9 ARRASATE Tfnoa: 79 11 78

Javier Egijara eta Javier Elorza, historian lizentziaturiko arrasatearrak ditugu. Orain dela 2 urte, afizioz hasieran eta interesak bultzaturik gero, familien zuhaitz genealogikoak egiten hasi ziren. Jendearen artean harrera ona izan zuen genealogia ezagutu nahiak, ondorioz hasierako afizio hura lanbide bihurtu zaie. Euren eta beraiekin lan egiten duten beste bi kolaboratzaile, arrastoaren atzetik ibiltzea gustatzen zaie eta dokumentu guztiak agortu arte ez dute amore ematen.

— Zenbat denbora behar izaten duzue zuhaitz genealogiko bat egiteko?

— Oso zaila da ziur esatea, zorteak ere paper garantzitsua jokatzeko bait du. Baina hala ere, batzuek beste eta gauzak normaltasunez joaten direnean, urtebete inguru behar izaten dugula esan dezakegu.

— Eta zein urtetaraino heltzen zarete?


— Normalean 1500. urte ingururaino, data hori baino lehen ez da erraztasunik izaten idazkiak aurkitzeko eta. Behin urte konkretu batetara helduta, dokumenturik ez da aurkitzen; beraz, gure lana hor amaitzen da, dokumentaziorik eskuratu ezin dugunean.

— Norberak egin dezake bere zuhaitz genealogikoa?

— Egin egiteagatik, egin daiteke, baina honelako lan batek, ezagutza jakin batzuk eskatzen ditu beste gauza askoren artean. XVII-XVIII mendetara helduz gero, muga ugari sortzen dira. Adibidez paleografiaz topo egiten duzu, grafia zaharraz, eta idatzi hauek ezin ditu edo-

Javier Egijara

Zuhaitz genealogikoak: detektibe lana



nork irakurri. Populazioaren % 50a bere genealogia egiten hasten da, baina askotan aurkitutakoa ez da zuzena izaten, gainera zailtasunekin topo egiterakoan jende gehienak bertan behera uzten du ordura arte aurkitutakoa.

— Norberaren abizena nondik datorren ikertzeaz gain, hainbeste trapu zahar astindu ondoren, beste gauza asko ere jakingo dira, ez?

— Genealogiak argi

erakusten du historia errepikatu egiten dela. Zuhaitz bat egiterakoan ikusten da badaudela familiartekoak egun berean jaiotakoak edo izen bera dutenak. Pena da argazkirik ez edukitzea, zeren garbi ikusiko genuke gure arbasoek eta guk nolako antza dugun.

Orain gutxi Lekeition gertaturikoa adibide garbia da. Alemaniar bat etorri zen orain dela 500 urteko erreta-

bloa berrizatzera, eta kalera irtetzen zenean erretabloko jendea han ikusten zuela konturatu zen. Seguruenik erretabloa egin zuena, kaleko jendearen aurpegietan oinarritu zen eta 500 urte beranduago alemaniarrek pertsona hauen irudia kalean ikusten zuten.

— Arrasatearren zuhaitzak egiterakoan, zein bitxikeria aurkitu duzue?

— Deba Garaiko abizen askoren harmarriak aztertzean, askok larrosa bat zutela ikusi genuen. Arakatzeko hasi eta Lancaster ingelesek euren defentsako ezkutuetan zeramaten larrosa eta hemengo harmarrietan agertzen zena berdintsuak zirela ikusi genuen. Dirudienez, duela mende batzuk, hemen ingeles aurkako bataila bat burutu zen. Euskaldunek irabazi zuten, ingeles haien ezkutu batzuk eurentzat hartu zituzten. Ondoren abizenen harmarrian larrosa kopiatu zuten.

— Kanpotarrek eskatzen dizute ikerketarik egitea?


— Bai, Hego Amerikakoek batez ere. Venezuelako batek idatzi digu, berak egindako aurkikuntza batzuen ondorioz markes titulua dagokiola esanez. Guk, berriz, garbi ikusi dugu berak egindako hainbat ikerketa okerrak izan direla, eta azalpen erraz batekin markesa ez dela azaldu diogu.

— Eta zuhaitz genealogiko bat egitea zenbat diru kosta daiteke?

— Prezio bat ematea ez da erraza, baina gutxi gora behera 300.000 pta. inguru. Horrela esanda garestia dirudi, baina kontuan hartu behar da liburu lodi bat egiten dugula bildutako informazio guztiaren berri emanez, eta ez izen guztien zerrenda bakarrik.

— **“Gure lana dokumentaziorik aurkitzen ez dugunean amaitzen da”**

Iragana eta geroa politikoen ahotan



Xabier Zubizarreta
HB

1.991garren urteari errepasu bat ematerakoan, zera nabarituko nuke orohar; Gorabehera nahiz proiektu eder, etendura eta astoraldi ugari xamar izan duen urtea suertatu dela; Emankorra, beraz, gertakizunetan.

Nazioarte mailan, Europar Ekialdea, Palestina-Israel, El Salvador, Sahara, Europako Elkarte Ekonomikoa... batzu aipatzearen, aurrerapausuak emango ez emango, zirt edo zart egingo ez egingo azaldu zaizkigu.

Euskal Herri mailan, hauteskunde autonomikoen ondoriozko gobernu krisiek astindu gaituzte, Baskongadetan hasierako tripartitua bipartitu bihurtuz, eta Nafarroan Alliren gobernu agian

ustekabea, utziz emaitza gisa.

Amedo-Dominguezi egindako epaiketa, bertan behera auzi (edo hautsiz).

Negoiazioari ateak itxi, ETA-Gobernu Zentrala, Leitzaran... (beti ere atezaina berbera izaki).


Euskaldunon Egunkaria koskortu; Inoiz egin denik eta Independentziaren aldeko manifestaziorik haundiena... Denak ere asmo eder zein kontrajarrien emaitza.

Arrasaten ere ezin, bada, gutxiago izan eta konponezinik bezainbat egiteko gogoia ere azaldu da gure artean; Udal Hauteskundeon ondoriozko gora beherak, Uherkape, Iturripeko Kiroldegia, Prentsa Lokalari buruzko Ihardunaldia, mojak ere joan zaizkigu...

Eta zer itxaron behar dugu, hasitako urte honen aurrean?

Ez bederen agindutakoa beteko denik. Halere, ustekabea etorkizun baten aurrean egon gaitzek; ez baina inongo zenbaki borobilik betetzen delako, aurrekoen hurrena delako baizik.

Guk, bada 1.992garrenari geurea dena ematea exiji diezaiogun, hurrengoetan saiaturako gara eta, daukaguna hobetzen.



Nekane Iglesias
PSOE

Joan zaigun urtean ezer gutxi aurreratu da munduan, eta ez dut uste aurtengo honetan ere askoz gehiago aurreratuko denik; horregatik ezin dut balorazio baikorrik egin 1.991. urteari buruz.

Nazioarteko egoerari begira, badirudi "Perestroika"k zekarren askatasun oihu hura beldurrerazteko moduko arrisku-zentru ikaragarri bihurtzeko bidean dela, kontutan izanik azken bolada honetan sortu diren arazoak. Sobiet Batasunak jasan duen desagertze prozesu lekukoak izan gara: honek zalantzazko egoera baten murgildu gaitu zenbait, gobernuak mantentzen duten zurkeriak eta botere nahiak eragiten duten desconfidantzagatik, gobernu hauek estrategia falta eta

giza-zentzurik eskaxena azaltzen dute beraien herriak gauzarik narratx eta bajue-nera eramanaz: gerrara.

Gure herrian, agerian geneukan ekonomi-krisia errealtate latz bihurtu da, eta nahiz eta 1.992. urtean krisia zertxobait arindu, gerora bere alderdirik garratzenarekin zigortuko gaitu.

Bakea, maitasuna, askatasuna, berdintasuna, elkarren arteko ulertze asmoak, imaginazioa opatzea utopia da, baina hala ere deus ez diren hitz eta nahiak ere ez dira.



Jose Mari Loiti
EAJ

Bukatu berri den urte honetan, legealdi biren arteko transizioa izan denez, aurrekontua eta egindako proiektuak gestionatu dira eta Arrasateko Udaleko arazoak barrutik ezagutzeko aukera eman digu EAJko taldeari. Hasi den urterako, Arrasateri ere eragingo dion krisi ekonomiko baten aurrean gaude.

EAJren jarrera lanerakoa da eta lanpostuak sortzeko Udalak baliapideak zuzentzekoa, eta baita lanpostuak sortzeko zein baldintza konpetitibodun poligono industrial berrien sustapena dakarten ekimen berriak bultzatzeko ere.

92ko aurrekontuak ahalik eta gutxien hazi behar duela 1991koarekiko ohizko

gastuetan.

Euskaran, garapenerako plangintza batera iritsi nahi da orainarte lortutakotik abiatuta eta ATB eta Arrasate Pressen behin betiko kokalekuaren zain gaude..

Hezkuntzan, eskolamapa zehazten parte hartzea da gure asmoa, etorkizun hurbilean izango diren beharrak ezagutzetik abiatuta, Udalak eskaini behar dituen baliapideak ezagutzeko, inbertsio eta mantenimendu arloan, beti ere eskolome guztien baldintza berdintasunetik abiatuta.

Hirigintzan, konforme izango gara 1991 eta aurreko urteetatik datozen arazo gehienak zuzendu eta konpon-tzearekin .



**P. Mari Ruiz de Azua
EA**

1991 urte ona ala txarra? 1992 hobia ala okerragoa?

Danak dakigunez ez du sekula euririk egiten denon gustora. 1991an ez du egin eta, dudarik gabe, 1992an ere ez du egingo; edozein modutan, euria egiten duen bi-

tartean ez dugu arazorik, lehorraldian hasten dira arazoak.

Zeintzuk dira Arrasateko lehorraldiak? beste batzuen artean langabezia, Drogomenpekotasuna aipatuko nituzke gainera kontutan hartu behar da prolema horiek beste prolema sakonagoen ondorioak direla. Nire ustez, Krisi Ekonomikoa da bat eta berari lotuta dagoen Krisi morala edo printzipioen falta, beste alde batetik ETaren ekintzak dauzkagu.

Hauek hirurok nahastuta, primerako *coctail* lehergailua irten da gure herriaren garapenarentzat. Ildo berean jarraituz, garbi ikus daiteke zeintzuk diren 92an eman beharko litzakezen aldaketak. Lehengo arazoaren aurka egokia izango litzateke Madrilena eta Gasteizen agintzen daudenen jarrera aldatzea, haiek Euskadira ere begiratu beharko lukete eta hauek Estatuaren garapenaren alde gehiego saiatu beharko litzateke.

Bigarren arazoaren aurka: eta hor gaude euskaldun guztiok, behar beharrezkoa da lanari ebaketako prestakuntza hobetzea; lanean gogor saiatzen ez bagara ez dago zer eginik.

Eta hirugarrenaren aurka, bere bidea uzteko eskatzen diot ETari berriz, beste bide batzuren bitartez badaudelako medioak eurak euren medioen bidez lortzen dutena baino gauza gehiago lortzeko.



**Aitor Orobengoa
EE**

Iraganari begiratu, 1.991ko urteak nirekiko nabarmenki inolako izaterik agertu badu, ilusiotik atsekabera maldanbera joan zen Euskal Gobernuaren sorkuntzak eta bapateko suntsipenak sortutako atsekabearena izan da. Jarraian, 15 urte ondoren, kale luzez luzatu den EEn krisia eta lur jotzea ere pairatu genuen.

Halere, gertatutakoa gaintitu nahian bi ideia bururatu zaizkit aurtengo urterako; hauek dituzue: Bata, biderik badagoela ezker abertzaletasunaren ingurutan gabiltzanon indarrak lotzeko. Horretan bortizkeria dugu muga bakarra!

Bigarren eta azkena, pertsona bakoitzari nahiz elkarlanari lotuta dauden ekonomia, kultura eta gainteko alorretan tamalez euskal izatearekin bat lotuta dagoen eta egunero erakusten dugun ezezkortasunari alaitasunez jantzitako kemena oldartu behar diogula, alegia.

Hala bedi!

• **“1992.ari geurea dena ematea exiji diezaiozun, hurrengoan saiatuko gara daukaguna hobetzen”**

Xabier Zubizarreta

• **“Gure herrian, agerian geneukan ekonomi-krisia errealitate latz bihurtu da”**

Nekane Iglesias

• **“92ko aurrekontuak ahalik eta gutxien hazi behar du 1991koarekiko ohizko gastuetan”**

Jose Mari Loiti

• **“Bere bidea uzteko eskatzen diot ETari berriz ere”**

P. M. Ruiz de Azua

• **“Biderik badago ezker abertzaletasunaren ingurutan gabiltzanon indarrak lotzeko”**

Aitor Orobengoa

**URONDO
elektrizitatea**




Nafarroa etorbidea, 11 Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE

- * Elektrogaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuadernazioak
Planoen erreproduzioa
Offseta

Ferreras, 23
ARRASATE Tfnoa: 79 46 62



Eskubaloari etorkizun ona antzematen zaio

Gabonetako oporretan izugarritzko arrakasta lortu zuten Arrasate Eskubaloi taldeko gazteek. Gazteen taldeak, Castellongo Burriana herrian "Nadal Sport Balonmano" lehiaketan parte hartu zuen eta finaleraino iristea ere, lortu zuen. Hasieran arrasatearren asmoa ikastea besterik ez zen, baina final-erdian ustekabean *Avidesa* taldea gaingitu ondoren, Arrasateko Gazteen taldeak izugarritzko lorpena zuen eskuartearen, finala jokatzeko aukera. Finala, *Burriana* taldearen aurka izan zen eta luzapenean erabaki zen, arauzko denbora 18ko berdinketaz bukatu eta gero. Luzapenean etxekoak nagusitu ziren eta azken emaitza, 22-21ekoa izan zen. Dena dela, bertakoek ere horrela adierazi zuten, arbitroek zer ikusi handia izan zuten arrasatearrek garaipenik ez eskuratzeko. Garaipen barik ere jendea pozik, eguneroko lanak zerbaitetarako balio duela argi ikusi bait zen Burrianan.



Squash txapelketa

Hile honetako 17, 18 eta 19an Musakolako kiroldegian Squash txapelketa burutuko da. Txapelketa horretan, edonork izango du parte hartzeko aukera eta izenak emateko kiroldegira bertara deitu beharko da, hilaren 11 baino lehen, 79 04 27 telefono zenbakira deituta.

Hurrengo partidua

Durangora egindako bisitatik ezin izan zuten mondragoetarrek emaitza onik ekarri; bai, ordea, poza egindako jokoagatik. Izan ere, partiduko lehen zatia oso osorik Mondra taldearena izan zen, horregatik atsedendian markagailua 1 eta 2koa zen arrasatearren alde. Lehen zatia arrasatearrena izan bazen, bigarrena gehiago, baina futbolak honelako gauzak ditu eta etxekoek bi gol lortu artean, Mondrak bat bakarra lortu zuen. Beraz, azkenean 3 eta 2 Durangoren alde.



Emaitza txarra izan zen, baina egindako jokia eta sortutako aukera ugariak pozgarriak dira. Futbolak batzutan horrelako gauzak dauzka, batek hazia erein eta besteak fruitua jaso.

Igandeko partidu hori ahaztu eta aurrera baikortasunez begiratzeko arrazoi ugari daude, arrasatearrek azken aldera ondo, ilusioz eta ahaleginduz jokatzeko ari bait dira. Igande honetan, Sodupe taldea etorriko da Atxabalpeko futbol zelaira, sailkapenean mondragoetarren parean dagoen taldea. Sailkapenean parekotasuna baina zelaian ez litzateke ikusi behar, Mondra talde hobea da eta. Igandean, azken aldean Mondra egiten ari den joko bikaina ikusi nahi duenak Atxabalpera hurbildu beharko du arratsaldeko 3.45etarako. Ea gol ugari ikusteko betarik dagoen!

FANCY

GAZTEEN MODA! Bizkaia Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

beatriz

oinetakoak eta poltsak

Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 3 ARRASATE

IGOR GUENETXEA

Familiakoen bidetik

Hamaika urte zituela ekin zion Igor Guenetxeak txirrinduan ibiltzeari. Orduetik sei urte pasatu dira eta dagoeneko, aurten, beste lau atxabaltarrek moduan, Gipuzkoa ordezkatzuz Estatuko jubencil mailako ziklo-kross txapelketan parte hartzeko aukera eskuratu du. Balentzian burutuko den Estatuko ziklo-kross txapelketarako, ez du esperantza gehiegi Igor Guenetxeak. *"Irteera ona egiten badut baliteke hamar lehenengoen artean bukatzea. Pozik geldituko nintzateke hori eginez gero. Oso zaila iruditzen zait nik neuk irabaztea, orain arte bigarren postua baino hoberik ez dut lortu eta"*. Bere ondoan izango dituen arerioez gain, Igor Guenetxeak Balentziako zirkuitoaren oztopoa aurkituko du; hemen izaten direnekin konparatuz gero, oso bestelakoa. *"Teknika handia eskatzen du Balentziako zirkuitoak eta gainera oso laua eta zolu gogorrekoa da. Teknikoki ez dut aparteko eragotzenik, txirrindua ondo menderatzen bait dut, baina ez daukat horrelako zirkuitoetan ibiltzeko ohiturarik. Dena dela, irteeran ondo kokatuz gero, edozer gauza gerta daiteke"*. Igor Guenetxearen ustez, irteera ona egi-

PODIUMA



teak izugarriko garrantzia dauka, lasterketek bakarrik berrogei minutuko iraupena izaten dute eta. *"Beti erdi-berotuta ateratzen gara, irteera lerroan aurreneko postuetan ateratzeagatik. Bizkaian hemen baino okerragoa da, han lasterketa hasi baino askoz ere lehenago jartzen direlako irteera lerroan. Aurrean ateratzeko aurpegia jarri behar da askotan"*.

Igorren osaba txirrindulari profesionala izan zen, bere lehengusua aurten profesionala izango da, eta bera? *"Ez dut uste zer egin handirik dudarik, errepedetako lasterketetan ez naiz orain arte oso ondo ibili eta. Behar bada, ziklo-krosean aukera hobeak izango ditut. Dena dela, ikusi egin behar datorren denboraldian afizionatu mailako talderen baten saritzeko aukerarik dudan ala ez, talde barik ezer gutxi egin daiteke eta"*.

◆ Arimazurikoak garaile

Bilboko Athletic-ek, urtero gabon aldera hamaika urteko beherako hurrentzat futbol txapelketa antolatzen du. Aurten, Arrasateko Arimazuri auzoko talde batek bertan parte hartu du, baita garaipena eskuratu ere. Guztira, arrasatearrak barne, 60 talde izan dira txapelketa horretan. Arimazuriko mutikoen, bederatzi partidu irabazi eta gero, finalean banako berdinketa lortu zuten eta gero penaltika irabazi. Zorionak, beraz arrasatear gazte hauei!

◆ Centraljetek galdu

Loiola taldearen aurkako partidua galdu zuten joan den asteburuan Centraljet taldeko mutilek, 63-55 emaitzaz. Txapelketako bigarren fasera begira, ezinbestekoa zen arrasatearrentzat partidua irabaztea, bigarren fasean emaitzak kontutan hartzen bait dira. Garaipen hori iritsi ezenez, bigarren fasea tramite hutsa izango da arrasatearrentzat, mailaz igotzeko aukera barik.

◆ Cnes. Brues bikain

Cnes. Brues futbito taldeko futbolaria bere mailan ederki dabilta. Joan den astean, Urko taldeari 6 eta 2 irabazi zion, era horretan sailkapeneko bigarren mailari eusten diola. Lehiaketa ofizialaz gain, Brues taldekoek astelehenean Estatuko lehen mailan jokatzen duen *Muelles Bultzaki* taldearen aurkako partidua izan zuten, emaitza 0 eta 6koa lehen mailako alde, noski.

◆ Eskubaloikoak goraka

Azken aldean partidu guztiak irabazten dituzte Arrasate Eskubaloi taldekoek. Azkena, *Jauja* taldekoei 15 eta 24 nagusitu zitzaizen, erraztasunez gainera. Joko ona erakutsi arren, arrasatearrentzat mailaz igotzea nekeza izango da partidu zailak gelditzen zaizkie eta.

"PAL"

burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Uribarri etorbidea, 3
Tfnoa: 79 31 99



PAZI-OLA

GALDARAGINTZAKO LANTEGIA

Zaldispe kalea, 2 ARRASATE Tfnoa 79 29 91

Udalaitzeko bixamona

Dударик ez dago urte berria ospatzeko era asko dagoela eta esan dugunaren adierazgarri Udala auzoko panorama izan daiteke. Goizeko hamarrak ondo jota ziren, txirri-txirri, Udalaraino heldu ginenean. Plaza kotxez gainezka, taberna, berriz, jendez leporaino, oraindik ere gauari amaierarik topatu gura ez ziotenekin.

Baina mendi mailara etorrita, esan beharko urteko lehen egunean Udalaitz mendiak aparteko xarman zaten duela, zahar eta gazte, gizen eta argal, loti eta gautxori askok igoten duelako tontorreraino.



Ez gara baina, egun horretan jendeak zein baldintza fisikotan igoten duen aztertzen hasiko, baina seguru izan, hango izardiek eta purrustadak ikusita, mediku batek

baino gehiagok buruari helduko liokela.

Eguna, izatez, beti brillantia bada ere, denbora mailan narras samarra tokatu zitzaigun aurtengoa. Behe-

tan eguzkiak bazterrak epel-tzen zituen artean, tontorreko laino zaharrak erropa guztiak jantzi erazi zizkigun. Baina, lainoa zerratu izanagatik, ezin izan zituen han, batzuen mosuak eta begi "pekatariak" disimulatu. Puntako giroa bikaina zen, txanpaina eta ura, kasuan kasu, gura beste; saldie berore; turroia eta urte berri on desio mordo eta jendea koba inguruan geldi, nahiz eta hotz egin, jaisteko presa barik. Ez dakigu bada gustora zeuden ala erandakoagatik jaisteko bildurra sartu zitzairen. Dena dela, badakigu batek jaisterakoan garagarra irabazi zituela.

HANKAMOTZ

BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

Alkohola eta jaiegunak

E dari alkoholikoen kontsumoak gora egin ohi du pasa berri ditugun Gabon jaietan eta baita urtean zehar beste hainbat jaiegunetan ere.


Ardo on bat eta txanpan edo likore pixka bat, egun horietako mahai oparo eta onaren osagarri izaten dira.

Alkohola, jakina denez, gibelak metabolizatzen du, baina honek duen ahalmena oso mugatua da, ordubetean ezin bait du 15-20 gramo besterik metabolizatu.

Hamaika gradu (11°) dituen ardoa edaten dugunean —hiru laurdeneko botila bat— % 0,8 inguruko alkoholemia (alkohol-neurria odolean) sortzen du; arriskuaren muga, alegia.

Grafikoan ikus dezakezunez, baraurik hartzen denean, maximoa ordubetean lortzen da, ondoren pixkanaka jaisten hasten da eta 7 ordu behar izaten ditu guztiz desagertzeko.

Janariarekin hartzen de-



nean, berriz, alkoholemiaren neurria txikiagoa izaten da.

Emakumezkoetan, alkoholarekiko tolerantzia eskasagoa izaten da, metabolismoa geldiago burutzen delako eta horregatik du eragin toxikoa handiagoa.

Odolean agertuko den alkohol-neurria baldintza hauen arabera izango da:

1. Edandako alkohol-kantitatea.

2. Edariaren graduazioa: zenbat eta gradu gehiago, orduan eta altuagoa.

3. Baraurik ala janariarekin hartu den.

4. Pertsonaren pisua.

5. Sexua; emakumeak gizonak beste edanez gero alkoholemia altuagoa izaten bait du.

Beraz, bere neurrian edan, janariarekin batera neurria gaintitu gabe, gero ibilga-

ilua hartu behar duzunean batez ere. Aholkatutako neurriak gaintitzeak erreflexuak gutxitzen ditu, eta nabaritzen den euforia tentsazioak gidatzea arriskutsu egiten du.

Batzuk igaro dira, baina jai berriak ere etorriko dira. Ondo pasa, baina arriskurik gabe.

EUKENI ETA ARANTXA

Construcciones ARRASATE S. L.


Udalpe, 5 Etxabehea. Erguin auzoa. Tfnoa: 79 04 46

ARRASATE

Agur Txibisto, agur!!

Zurumurrua aspalditik zebilen airean, eta azkenean gauzatu da. Aurrerantzean Txibisto galdarategia izango da, eta Elgetarako bidean, iada akorderik ez, baina metal hotsak entzungo ditugu (amaiera heavygorik ezin).

Berarekin batera, akabo guretzat etxeondoan primerako talde internazionalak zuzenean ikusentzuteko aukera. Baina musikazaleontzat, rockaren ghetto marjinalean bizi garenontzat, besterik ere galdu da Txibisto industriari saltzeagatik, «beste dantzaleku bat» baino askoz gehiago. Zeren, Txibisto Euskal-Herri osoko kontzertu aretorik onena zen. Sarritan, talde internazional hauetariko zenbaiten espainiar bisitak Bartzelona-Madril-Bergara zirkuitora mugatu dira. Eta ez dut uste hau



huskeria denik.

Ekimen pribatua zen, eta salerosketa komertzial pribatua izan da; bale. Halere, noiz edo noiz amestu izan dut salba zitekeela, instituzioren batek lagunduta, kultur inbertsio gisa. Askoz minoritarioagoak diren hainbat kultur ekintza ere ez al da diru publikoaz laguntzen? Ez al da kultur inbertsio

beharrezko eta herrikoia-goa gelditzen diren kontzertu areto apurrei eustea, edota sare egoki bat osatzea (hiriburua estaliko lituzkeena gutxienez), Gernikan ezarri ziguten Henry Moore-n eskultura multimillonarioa edo zorioneko Guggenheim-a baino?

Bitartean, frontoiak eta kiroldegia bezalako toki

desegokiei, ez dagokien erabilera ematen jarraitu behar. Eta gelditzen diren areto urriak, pribatuak beti ere, desagertzen jarraituko dute, Euskadin rokanrolak ez bait du inoiz dirurik emanen.

Enfin, Txibisto hil da: gora burdingintza. Goian bego.

PATXI MONTERO

KIDE

Paperdenda eta jostailudenda

Erguin, 5 ARRASATE Tfnoa: 79 25 77



Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76

Gauzak gordetzeko kutxa
metalikoak
Otzaratzarrak
Giltzak gordetzeko armairuak
Erremintak eramateko gurdiak
Erremintak gordetzeko
armairuak
Lan egiteko aulkiak

Gabriel Elorriaga Dka.

Loditasuna • Zelulitia
Zelulolipolisiaren
tratamendua

Santa Kruz, 24-1ª (1ª Eskailera)
ARETXABALETA Tfnoa: 79 13 54

ENARA 
OSAGARRIAK

Maalako Errabala, 21
Tfnoa: 79 62 32
20500 Arrasate



◆ Kartel Lehiaketa

Udalak 1992 urteko haratuzte jaietako kartel lehiaketa antolatu du azken urteetan bezala. Lehiaketa honetan, Arrasateko edozein pertsonak har dezake parte, baina kontutan izan beharko ditu parte hartzeko dauden arauak. Alde batetik, 50 z. zabalera eta 70 zentimetro luzera neurrikoak izan beharko dute kartelek. Teknika libre baina, karteletan derri gorrez 1992 Haratuzteak testua azaldu beharko da. Bestetik, egilearen nortasuna azaldu gabe eta atzekaldean lema bat duela aurkeztu behar dira kartelak. Horrekin batera, sobre itxi batean lema bera eta egilearen datuak adieraziko dira. Parte hartu nahi duenak, 1992ko urtarrilaren 31 baino lehen, udal txeko kultur departamentura bidali beharko ditu kartelak. Irabazleak 50.000 PTako saria jasoko du eta saritutako lana Udalaren esku geldituko da kaleratzeko eskubidearekin. Azkenik, egoki ikusten bada, erakusketa egin ahal izango da aurkeztutako kartel guztiekin.



Gorosarri eta Arrasate Musikal Kontzertuetako grabazioaren zinta kalean

Eskoriatzako Gorosarri abesbatzak eta Arrasate Musikal Orkestrak 89an ekin zioten elkarlanari Eduardo Gorosarri musikoaren omenez antolatutako kontzertuaz. Ordurako prestatu zuten programaren barruan, Gorosarriren obrak daude, Jaunito Arzamendiren instrumentazioekin eta horrezaz gain Vivaldiren *Gloria* ere sartzen da grabazioan. Ezaguterazteko grabaketa bat egiteko zuten asmoa, 1991ko maiatzaren 17an Hernanin Kultur Bideetan programaren barruan emandako kotzertua, grabatuz bete dute azkenean. Gorosarriko lehendakariak, Rafa Agirrek, eta Juanito Arzamendik, orkestrako zuzendariak diotenez, zuzenean grabatze horrek dituen arriskuen gainera, gustora geratu dira emaitzarekin, euren saioen kalitatearen erakusgarri bait da. *"Grazia hortxe dago, zuzenean egin eta maila horretan ateratzeko. Emanaldi hoberik ere egin dugu, baina musiko bezala benetan pozik gertu naiz*



atera denarekin", dio Arzamendik. Grabaketan sartzen ez zirela eta, orkestrak bakarrik interpretatutako obra bi falta dira zintan, baina hurrengoan izango da.


"Hainbeste sakrifizio kostatukoa herrian ezagutzea nahi dugu, jendeak ez du zuzenean entzuten eta. Batzuk badira kontzertuetara etortzen direnak, baina gehiengoak etxean duen musika aparatuan entzuten du musika eta honekin aukera izango du gurea

den gauza bat entzuteko". Zinta 800 pezetatan jarri dute salgai, baina salneurria laguntza bat lortze aldera jarritakoa da, taldeen hainbat gastu ordaintzen laguntzeko. Jendeari interesatzea da helburua eta 1.000

ale atera dira. Dagoeneko erantzun ona izan du, musikaz asko dakien zenbateren esan die eta eurak direnik ere sinistu ezinik egon direla kalitateagatik.

Grabazioaren barruan eta abesbatzak eta orkestrak batera burutu duten lanean, bada Arrasatearentzat aipagarri den konposizio bat, *Udalamendi* hain zuzen ere. *"Arrasateko-Arrasatekoa da, Arrasaterako bertarako ilusio osoaz egindako sorkuntza lana, geure-geurea eta hori jakinerazi egin behar zaio herritarrari"*. Era honetako kontzertu bat prestatu ondoren aprobetxatzea merezi duenez, elkarlanean jarraitzeko asmoa badute oraindik eta baita Eskoriatzan eman berri duten Koronazioko meza ere, jendeari asko gustatu zaio eta.

Herrian bertakoa ezagutu arazi nahi dugu grabazioarekin



GRETEL GAZTE-MODA
Hasi urtea
%40arekin!

Otalora Lizentziatua, 5 ARRASATE Tfnoa: 77 00 81

Aste gazte

"Gaztaroa asmazio modernoa da, proletar-goa ere joan den mendeko asmazioa den bezala. Lehen, gaztaroa, helduarora iritsi bitartean pasa beharreko urte batzu ziren, eta nagusien antzera mozorrotu nahi izaten genuen, gorbata, bibotetxoa..."

J. L. Lopez Aranguren.



Elkarteko unibertsitateetako ikasleak. 25 kmtatik gorako distantzietarako. Inprimakiak: ikastetxeetan edo Lurralde Ordezkaritzan. Epea: urtarrilak 21.

• Ikertzaileak prestatzeko bi beka. Eskatzaileak: Ekonomia, Zuzenbidea, Soziologia, Politika-Zientziak edo Psikologian lizentziatuak. Dirulaguntza: 1.100.000 PTA. Iraupena: urtebete. Epea: urtarrilak 20.

Lehiaketak

• Bilboko ihaüterietarako kartel-lehiaketa. Kolore eta teknika librea. Sari bakarra: 175.000 PTA. Lanak aurkezteko epea: urtarrilak 15.

• Arrasateko Haratuzteak 1992 kartel-lehiaketa. Neurriak: 50x70. Teknika librea. Saria: 50.000 PTA. Lanak aurkezteko epea: urtarrilak 31.

Eski-asteburuak

• Urtarrilean hasita, asteburuko irteerak egingo dira Formigalera. Ikasle eta langabetuek klaseen %50eko deskontua izango dute.

Ikastaroak

• Gazteentzako sexualitate-ikastaroa. Hasiera: urtarrilak 22. Iraupena: 3 hilabete. Astean 2 ordu. Famili eta Gizarte Heziketarako Zentroan. Prezioa: 500 PTA.

• Musakolako kiroldegia: ume eta helduei zuzendutako ikastaro ugari: igeriketa, judoa, gimnasia (mantenimendu eta erritmikoa), aerobic eta masaia.

• Izotz Eskalada ikastaroa, hobekuntza mailan. Gipuzkoako Goi Mendi Eskolak antolatua. Otsailak 15 eta 16, Gavarnie-n. Prezioa: 8.000 PTA (ikastaroa eta alojamendua pentsio-erdiz).

• Mendiko Eskia, Gipuzkoako Goi Mendi Eskolak antolatua. Egunak: otsailak 22/23, 29/01 eta martxoak 7/8. Teoriko eta praktikoa. Prezioa: 28.000 PTA (bidaiak, 3 gauetako alojamendua pentsio erdiz, igogailuetarako bonoa, materialea, dokumentazioa, e. a.).

"Arte Nuevo" erakusketak

• Madrilgo "Expo-Chamartin" enpresak bere 1000 m-tako espazioa eskaintzen die pintore eta eskultoreei obrak ezagutarazteko. Hiruhilabetero, aurkezten diren proposamenen artean aukeraketa bat egingo da.

Bekak

• 1992ko udan alemanera-ikastaroak egiteko beka. Eskatzaileak: alemaneraz oinarrizko maila (Grundstufe I) duten azken ikasturteetako unibertsitate-ikasleak. Adina: 19-32 urte. Dirulaguntza: 4.250 DM, aseguru eta bidai-laguntza. Epea: urtarrilak 17.

• 91/92 ikasturteko eguneroko garraio gastuak ordaintzeko beka. Eskatzaileak: Euskal Autonomi

Informazio gehiago:

Gazte Zerbitzua,
77 00 65

**IKAS
TAROA**

**LEHEN LAGUNTZETAN
IZAN BEHARREKO PORTAERAK**

EMALEA: SABIN PADILLA (SENDAGILEA)

EGUNAK: URTARRILAREN 9-16 (OSTEGUNAK)

ORDUA: 3 RETAN

TOKIA: AED N (PABLO URANGA)

ANTOLATZAILEA: "EKIN" (EMAKUME TALDEA)

AED ELKARTEA

Pablo Uranga, 4 beheko Tel. 79 54 46
20500 ARRASATE - GIPUZKOA

ETXEBIZITZAK

- Santa Teresa 6, 3. ezkerreko etxebizitza salgai dago bai atarte berebean dagoen bezero oneko ileapaindegi lokala ere. Tfnoa: 79 03 64.
- Eskoriatzan pisua osatzeko neska baten bila gabiltza. Tfnoa: 81 66 24.
- Erguinen etxebizitza salgai. Amueblatua, gas naturala, hiru logela, egongela, sukaldea, bainugela, bi terraza, eguzkitsua, bista ederrekota eta garajea aukeran. Tfnoa: 79 93 42.
- Logela alokatzen da. Tfnoa: 79 07 73.
- Eskoriatzan etxebizitza alokatuko genuke lehenbailehen. Tfnoa: 73 04 20. Amaia.
- Etxebizitza salgai Zigarrolan. 4 logela, egongela-jangela, sukaldea, bainu gela, guztiz amueblatua. Dei egin 79 18 34 zenbakira.

LANA

- Frantseseko klase partikularrak emateko Irakaslea behar da Aretxabaletan. Dei egin 79 02 96 tfnora iluntzean.
- Neska prest OHoko klase partikularrak emateko. Dei egin 77 11 84 tfnora 5etatik 6.30etara eta 8.30etatik aurrera.
- Klase partikularrak ematen dira (fisika, kimika eta matematika). Dei egin 77 13 95 tfnora.
- Emakume euskalduna etxeko lanak egin edo umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 07 73.
- Irakasle Eskolako ikasle batek OHoko neska-mutileri emango lizkieke klase partikularrak. Tfnoa: 79 94 04. 6etatik 9ak arte. M^a Jose.

- Magisteritza Eskolako ikasle bat, OHoko klase partikularrak emateko prest legoke. Dei egin 79 74 03 tfnora.
- Esperientziadun neskak etxeko lanak egin edo umeak nahiz pertsona nagusiak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 15 35.
- REM edo BT 1eko klase partikularrak emateko prest nago. Dei egin 79 99 82 tfnora. Iñaki.
- Ume bat zaindu eta etxeko lanak egiteko pertsona behar dut Gasteizen. Interesatuak dei egin 945-28 67 44 edo 70 03 80 tfnoetara.

SALEROSKETAK

- Pegaso J4 furgoneta egoera onean salgai (6 urtekoa). Dei egin 79 26 81 eta 77 01 79 tfnoetara.
- 4 tokitako sofa salgai. Estreinatua berria eta oso egoera onean, modernoa eta oso merke. Deitu lan-orduetan 79 62 80 tfnora. Rosa.
- 80 cm-ko somier eta koltxo berri-berriak salgai. Tfnoa: 79 62 80. Rosa.
- Autorako erremolkea salgai. Tfnoa: 76 45 12.
- Eskupeta paraleloa oso egoera onean salgai. Tfnoa: 76 45 12.
- Birkientzat kotxe-aulkia salgai, oso egoera onean dago. Dei egin 10etatik aurrera 94-658 21 97 tfnora. 10etatik aurrera.
- GAC First mobillette salgai. Dei egin 79 45 74 tfnora. Aitor.
- Ia berria dagoen arkol-izozkailua saltzen da 65.000 PTAtan. Neurriak 1,30 cm. luzeeran, 0,90 cm. altueran eta 0,65 cm. zabaleran. Dei egin asteartetik larunbat bitartean 94 - 682 04 83 tfnora.

- Talbot Horizon autoa salgai. SS-N matrikuladuna. Motorea errektifikatua eta errebisioa eta aseguru abuztuan eginak ditu; beraz, aukera ezin hobea. Interesatuak dei egin 94 - 682 04 83 tfnora. asteartetik larunbat bitartean goizeko 9etatik 12.30etara.
- Orbea markako lasterketa-bizikleta berri berria salgai. 25.000 PTA Tfnoa: 79 40 44.

DENETARIK

- Katu-oin bat galdu dut Aretxabaletatik Arrasaterantz. Tfnoa: 79 25 15.
- Eskumuturreko orlojuak galdu dit. Nire lehenengo jaunhartzekoa da. Dei egin 79 29 39 tfnora. arratsaldeko 7.30etatik aurrera.
- Bilbora eramateko prest dagoenari: mesedez, deitu berriro, zure telefono-zenbakia gaizki daukat eta. Tfnoa: 79 22 63.
- Portugaleteko Arlitz Gonzalez bere urte betetzear zorianak Arrasateko senide guztien partez.
- Larunbatean San Frantzisko Inguruan, harribitxi landuz osatutako urrezko itxiduradun bi bueltak koilarra galdu nuen. Mesedez ekarri Arrasate Press-era.
- Abenduaren 8an, igandez arratsaldeko 4.30ak Inguruan, gitarra batzuk galdu ziren Urbarri Etorbidetik Zarugalde kalera bidean. LKAren anagramadun diru-zorrobaten barruan zeuden, diru apurren batekin. Aurkitu dituenak utzi dituzala mesedez Udaltzaingoa. Eskerririk asko.
- Gabon zaharrean urrezko eskuturrekoa galdu zatzaldan. Norbaitek aurkitu balu eskertuko nioke 79 53 53 tfnora. deitzea.
- Arrasateetik Leloara. Egunero autoz Unibertsitateetik joan-etorria egin behar dut. Nahi baduzu, gastuak erdibana egingo ditugu. D ei egin eguerdiz 79 50 20 tfnora. Imanol.



ARRASATEN HILDAKOAK



Victor Murgia Villaran,
abenduaren 19an. 81 urte.

Antonio Mora Ortega,
abenduaren 21ean. 96 urte.

Manuel Casas Ortega,
abenduaren 22an. 88 urte.

Saturnino Amlano Unsari,
abenduaren 24ean. 60 urte.

Ageda Delgado Ellices,
abenduaren 26an. 84 urte.

Justo Duque Garcia,
abenduaren 27an. 58 urte.

Leandro Agirre Balanzategi,
abenduaren 27an. 82 urte.

Juana Arregi Urdanpilleta,
urtarrilaren 4ean. 88 urte.

Josefa Larrea Garate,
urtarrilaren 6ean. 87 urte.

Pedro Balanzategi Aldasoro,
urtarrilaren 7an. 63 urte.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDE DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....


Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 77 08 15

Zer nahiago?

Itxaro Zubillaga

Mondra Taldeko Komentarista



- UDA ala Mondra? UDA, dudarik gabe. Badakizu, bakoitza bere herriko taldearen alde.
- Mendiko botak ala txarolezko zapa-tak? Mendiko botak.
- Kanpoko partiduetara kotxez ala autobusez? Kotxez hobeto.
- Txakurra ala katua? Ez bata ez bestea. Ez naiz animalia zale.
- Burukomina ala haginetakomina? Burukomina.
- Futbol ona golik gabe ala futbol txarra golekina? Futbol ona golik gabe, nahiz eta futboleko golak agindu.
- Kevin Costner ala Miguel Bose? Kevin Costner.
- Telenobelak ala filmak? Telenobelak.
- Telebista ikusi etzanda ala eserita? Gehienetan etzanda, eta berdin zait lurrean etzatea ere.
- Toshack ala Boronat? Toshack.
- Eutanasia bai ala ez? Baietz esango nuke, baina hala ere kasu batzuetan ez nuke onartuko.
- Idatzi ala hitzegin? Hitzegin, zeren idaztea gehiago kostatzen zait.
- Kirolez kirol ala tribuna gol? Kirolez kirol.
- Kalimotxo ala Joxemari? Kalimotxo.
- Idatzi paper zurian ala kuadrikulatua? Kuadrikulatua.
- Ford ala Renault? Renault.
- Aurrelariak ala atzelariak? Atezainak.
- Mantzanila ala tila? Goizero hartzen dut manzanila.
- Plantxa egin ala hautsak kendu? Hautsak kentzea, baina ez pentsa hori ere oso gustora egiten dudunik.
- Beroki luzeak ala motzak? Luzeak, baina ez berainokoak.


Bertsotan

1992

1
Lehena arantza izanagatik gaurkoa omen larrosa, bost mende pasa direla eta badator noventaidsa. Berriro ere pobreen negar eta aberatsen poza, historiari buelta emateko horra urte aproposa.

2
Zapaldutako herriak daude oraindio jakin zale, nongo jaungoikok animatuta ginen monja eta fraile. Bost mende luze egin ondoren lasai gaude gu garaile, ingles burudun europearrak amerikar askatzaile.

ION IÑAKI IZARZELAIA



**Hilbera
kafetegia**

Uribarri Etorbidea
ARRASATE

**ZUBIZARRETA
TAILERRAK**

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE Tfnoa: 79 15 65

LORATEGI

taberna

Iturriotz, 7 Tfnoa: 79 04 67



Jose Maria Arizmendiarrietta Arrasatera iritsi zenean egin zuen lehen gauza gazteekin biltzea izan zen. Argazkia garai haietakoa da, 1.941. urteko apirilaren 27an aterata. Oraindik *Acción Católica* sortu barik zegoen eta are gutxiago kooperatibismoa sortzeko mugimendua. Arizmendiarrietaz gain, argazkian Juan Zubizarreta apaiza ageri da, "Escuela de aprendices" sortu eta zuzendu zuena. Gainontzeko gazteak,

ezagutu ez ditugunak tartean, honako hauek dira: Juldain, ezezaguna, J. Arana, R. Zubizarreta, R. Arroitia, P. Sanabria, J. Zubizarreta, C. Martinez, I. Iraeta, J. L. Urrutia, I. Gallastegi, J. Agiriano, J. A. Atxa, R. Escudero, Otadui, Marin, F. Garcia, J. I. Velez de Mendizabal, F. Arzamendi, V. Errarte, A. Ezkurra, J. M. Arizmendiarrietta, ezezaguna, Villarejo, ezezaguna, Urzelai, O. Azkonaga, F. Elustondo, J. Enekotegi, J. Larrañaga, J. Gorroñoigoitia, Urtubai, ezezaguna, ezezaguna, P. Azpiazu, M. Uriarte, J. R. San Miguel, ezezaguna, P. Murguzur, J. Iñarra, I. Arizaga, A. Zabaleta,

J. Palacios, F. Aranburu, Salaberri, Otadui, A. Altuna, A. Gorroñoigoitia, J. Bolinaga, Madinabeitia, F. Ajuria, J. Bilbao, J. Zubizarreta, ezezaguna, J. Gallastegi, J. Beltrán, ezezaguna, ezezaguna, L. Azkoaga, ezezaguna, L. Usatorre, J. Aranzabal, ezezaguna, F. Arriaran, I. Agiriano, S. Arregi, R. Amozarrain, L. Abarrategi, A. Oregi, ezezaguna, A. Sanabria, I. Arregi, E. Landaluze, P. Ayala, J. Etxeberria, L. Aretxaga, J. Zulueta, A. Zubillaga, ezezaguna, V. Sagasta, J. Markaide, A. Lodoso, ezezaguna, ezezaguna, ezezaguna, ezezaguna, S. Etxebarria, J. Arzamendi eta ezezaguna.

ARRASATE HOTELA



Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16

URRATS

AHOLKULARITZA

GARIBAI, 3
Tfnoa: 79 87 74

ARRASATE


ARGI PLASTIC. C. B.

PVC eta aluminiozko
leihogintza

Berria Arrasaten! Diseinu berriak!

Axeri, 3 ARRASATE
Tfnoak: 77 02 40 / 77 11 30

Gurutzegrama




Horizontalak

1. Arrasate Euskaldun Dezagun
4. Burutu
7. Abaraska
9. Ugaztun basatia, belarri handiduna
10. Kasik
12. Txuri-urdin taldea
14. Hoge, erromatar erara
16. Omen
17. Garandu
19. Lardaskak
21. Animatu

Bertikalak

1. Animaliak
2. Erresuma
3. Gipuzkoako udala
4. Europako komunitatea
5. Asuntu
6. Nafarroako ibilgailuetan
8. Hitz barruan hots independentea
11. (Ald.) Akats
13. Alegera
15. Zimel
18. Nafarroako udala
20. Ez eme



JUAN BAUTISTA AGORRIA

BIDEO-EMANALDIA

Gremlins 2

Tokia: Monterron kultur etxea


Eguna: urtarrilak 11, larunbata

Ordua: arratsaldeko 4.30etan

Prezioa: 50 pezeta

Sarrerak: Monterronen

Antolatzailea: Arrasateko Udaleko Euskara Batzordea





Erreportaiak

Astearte, 9.15

Azken boladan zeresan ugari eman ditu Arrasateko trikitixa eskolak. Eta asteartean, gure lehenengo erreportaiak lan eder horri buruz izango da.

Astearteko *Erreportaiak* saioan ere, lantegi eskolaren etorkizunari buruz jardungo dugu.

Martitzenean. 9.15etan.

Telebegi

"Telefonoa gizatasunaren etsaia da; liberalizatu". Duela zenbait egun pintada hori ikusidut Arrasateko hainbat hormatan. Ni ez naiz sartuko orain arazoak plazaratzeko pintadak egokiak diren ala ez aztertzeraz, lema berriz, justu iruditzen zaizkit.

Telebista, medio indartsua da. Eragin soziologiko nabarmenak ditu eta orohar gizarte-ko pautak kulturalak, pentsaera barne, bertatik etortzen zaizkigu maila handi batean. Baina telebistan, bertako produktuetan, hauetatik sartzen diguten ideologian, ez dugu hiritarrok muturra sartzeko aukerarik. Monopolio enpresarial sendoak dira, makroekonomiaren legetara makurtuak eta produktua onura ekonomikoaren arabera moldatzen dutenak. Horren arriskuak, ugariak; eraginak nabarmenak: konformismoa, pasibitatea, pentsamolde moldatu eta uniformeak...

Gizatasunaren etsaia da. Liberalizatu: Herri telebista. Herri bat, kate bat. Horixe izan beharko litzateke etorkizuneko erroka, telebista sozializatzearena hain zuzen ere.

Badago, telebistarekin lotuta, asko kezkatzen nauen beste arazo bat ere; ikasketetan egiten zaion kasu eskasa. Hain zuzen ere mass-medioren eraginak horren zabalak izanik, haurrengan batez ere, kontuan hartu behar da umeek bataz beste 5 ordu pasatzen dutela egunean telebista aurrean inolako defentsa barik, inolako irakaspenik gabe. Mass-mediak, telebistaz, ez da nik dakidanez OHO edo BUPen inolako ikastarorik ematen, eta hori nere ustez, HIESaren aurrean harreman sexualen arriskuaz ez informatzea bezain txarra izango litzateke. Baina, c'est la vie!

ANDONI URZELAI

Mondra-Gol

Aste honetan:
Mondra-Sodupe

Igandean
9.15etan

Txatxaran

Jon Anzin,
liburuzaina

Asteazkenean
9.15etan

Musikala

Arrasate Musikal-
i eskainitako saioa

Ostiralean
9.15etan

Programazioa

12

IGANDEA

9.15etan, *Mondragol*. Mondra-Sodupe partiduaren ordu erdiko laburpena. Jon Andueza eta Jose Luis Ezkurraren eskutik.

14

ASTEARTEA

8, 8.30 eta 9etan, *Berriak*. Egunean zehar jasotako notiziak.
9.15. *Erreportaiak*. Aste honetan, trikitixa eskola eta lantegi eskola izango ditugu aztergai.

16

OSTEGUNA

8, 8.30 eta 9etan, *Berriak*. Albistegia.

13

ASTELEHENA

8, 8.30 eta 9etan, *Berriak*. ATBren albiste-emanaldia.
9.15etan, *Mondra Sport*. Arrasateko kirol-mundua-
ren erreposoa, Gerardo Mendizabal eta Mikel Uri-
bealgorekin.

15

ASTEAZKENA

8, 8.30 eta 9etan, *Berriak*. ATBren albistegia.
9.15. *Txatxaran*. Maider Egüés-
ek zuzendutako elkarrizke-
ta-saioa. Aste honetako
gonbidatuak:

17

OSTIRALA

8, 8.30 eta 9etan, *Berriak*. Informatiboa.
9.15. *Ostiral Musikala*: Mar-
ta Izagirrek zuzenduta,
Arrasate Musikali eskaini-
tako saioa.

iKER



SUKALDE-ERAKUSKETA:

Udala Plaza z/g, Tfnoa: 79 00 43 ARRASATE